

# tti pi-ttapa

291. zenbakia • 2000ko azaroak 30 • XX. urtea



## 24 Mikel MINDEGIA: XX. mendeko txapelduna

Mendeko azken txapela Miel Mindegia irabazi du 51 urte-rekin. Doneztebeko finalean gibelean utzi zituen Nazabal eta Senosiain gazteak. Honez gero, mendeko txapeldunik handiena izan dela erraten ahal da.

## 3 Elkarriketa: Bidelagun taldea

Adinekoak zaintzen Baztanen lanean ari den boluntario taldea da Bidelagun: «Astean bi ordu guretzat ez da deus, baina beraietzat hori bizia da» diote Bolondresen Nazioarteko Eguna-ren bezperan.

## 6 Gaurkotasuneko Gaia: Behi eroen eritasuna

Europako bazter guziak harrotzen ari den gai honi buruzko iritzia eskatu diegu Sarako harakin bati, Berako abeltzain bati eta Aresoko erosle bati.

**TTIPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



## MODA DESFILEA DONEZTEBEN

# Herrian bertan dugu modan egoteko aukera

Gure ingurutik jende aunitz joaten da erosketak egitera Irun, Donostia, Baiona edo Iruñera. Auniztan, eskaintza eta prezio hobeak direla uste dugu, baina gehienetan ez ditugu aitzinetik gure herriko denda eta komertzioak bisitatu ere egin. Horri buelta ematen saiatzeko, moda desfileak eta feriak antolatzen ari dira azken urteotan eskualdeko komertzioak. Udaberrian hiru izan ziren bata bertzearen segidan eta orain, negu parte-


ko berrikuntzak eta Eguberrietarako prest duten generoa erakusteko, moda desfile berri bat presatatu dute. Hitzordua Doneztebeko kirolde-

gian da, igande honetan, San Frantzisko egunean, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera. Arropa, oinetako eta osagarriez gain, ileapaindegi, lurrindenda,

argazkidenda eta gisako hemezortzi saltzaileen lana ikusteko modua izanen dute harat hurbiltzen direnek. Xedea argi dute komertzioek: Ikusi, ikasi eta gero, jakinaren gainean, gehien komeni zaizun lekuan erosi.

4

Eskualdeko hemezortzi denda eta saltzailek erakutsiko dituzte euren produktu eta estiloak. Desfilean hirurogei modelok parte hartuko dute





*Zorionak eta Urte Berri On!*  
**MARTIKO**

- Ahatea
- Izokin, amuarrain eta bakailuak
- Ahate hegal, izter eta urdaiazpikoak
- Janari prestatuak

**ALKAIAGA INDUSTRIALDEA • © 948 625 016 • FAXA: 948 625 036**

# ORDOKI

## ALTZARIAK

**Estilo ugariko mobleak**  
 Larunbat goiz eta arratsaldez irekia



**LOGELAK,**

**EGONGELAK,**

**TRESILLOAK,**

**KUTXAK,**

**BESAUHKIAK...**

### ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

**SALTOKIA**

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780

NA-31780 **LESKA**

**A**rmairu enpotratuen erakusketa berria Bittirian



## DATUAK

❖ *Abenduaren Sean Boluntariadoaren Nazioarteko Eguna izanen da mundu osoan, eta Baztango Bidelagun taldeak ere besta herriko bat egingen du hori ospatu eta jendea kontzientziatzen segitzeko.*

❖ *Gaur egun 38 boluntario ari dira Baztango xahar eta eriei beren laguntza eskaintzen, baina beharrak handiak direnez boluntario gehiago behar omen dituzte.*

❖ *Boluntarioak etxeoandreak eta jubilatua dira batez ere, baina gazte bakar batzuk ere ari direla erran digute Isidro eta Aliziak.*

❖ *Luzera bertze herrietan proiektu hau ezagutzera eman eta taldea bertze eskualdeetara zabaltzeko asmoa erakutsi dute.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
ASIER GOGORTZA

Isidro HERGUEDAS eta Alizia ARREGI *Bidelagun taldekoak*

## "Astean bi ordu guretzat ez da deus, baina beraientzat bizia da hori"

**BADA URTE BAT BIDELAGUN SORTU ZELA. ZER BALORAZIO EGITEN DUZUE?**

ALIZIA: Artas gustora aritu gara. Ikusten duzu xaharrek beren irri hoberekin hartzen datzutela, beti izaten dute zerbait kontatzeko, eta aunitz eskertzen dute elkarrizketa tiki bat. Sentitzen duzu hortara denbora bat dedikatzen egiazki merezi duela. Nik animatuko nuke jendea apuntatzera.

**ZEIN DA ZEHAZKI EGITEN DUZUN LANA?**

A: Ni zahar-etxera gaten naiz, baina badira etxe partikularretara gaten direnak ere, eta baita Iruñean ospitalean dauden xaharrek egoten direnak ere.

**GAIXOTASUN PSIKIKOAK DITUZTEN ERIEKIN ERE EGOTEN ZARETE, EZTA?**

I: Bai, Benitomendi zentrorra gaten diren sei boluntario ditugu. Esperientzia diferentea da, hain bertze eritasun batekin daudelakoz. Handik 19 eskaera daude, eta 7 bakarrik beteak. Hor hutsune handia dago eta boluntarioak behar ditugu betetzeko.

Bertalde, urte honetan lau traslado egin ditugu. Guk ez dugu edozein traslado, behar gorrian daudenak bakarrik. Izan ere, lehenbizi gizarteak ematen dituen laguntzak daude,



«Boluntario izateko, laguntzeko gogoia izan behar da bakarrik».

eta soilik hondarrean, ez dutelarik inor, orduan sartzen gara gu. Ez diogu inori lanik kentzen.

**ZERBITZU OFIZIALAK MANTSOEGIAK DIRA?**

Zenbaitetan bai. Eskaera egin eta laguntza ailegatzeko denerako behar bada bi hilabete pasatu dira. Tartean pertsona hori gehiago eritu edo hil ere egin daiteke.

**LAGUNTZEN DITUZUE-**

» *Lehenbizi laguntza ofizialak daude, eta soilik hondarrean, ez dutelarik inor, orduan sartzen gara gu. Ez diogu inori lanik kentzen.* «

**NAK ONGI SENTITZEA DA ZUEN SARI BAKARRA ORDUAN.**

A: Bai, ez da bertzerik. Azkenean astean bi ordu zuretzat ez da deus, eta berendako aunitz da, behar hori sentitzen dutelako.

I: Denbora urtea dela erraten da, baina urte horrek balioa du ematen duzularik. Aunitz alditan, zenbat ordu pasatzen dugu telebistaren aitzinean? Guk ordu bat, edo bi ordu eskatzen dugu astean. Ez duzu zure bizia aldatu behar hemen hasteko.

**ZER EGIN BEHAR DU BOLUNTARIO IZATEKO GOGOIA DUENAK?**

A: Edozein boluntarioengana jotzea aski da. Boluntario izateko gogoia izan behar da bakarrik. Hain ez da lana, solas egin, paseietan ateratzea, jostatzea...

I: Benitomendira gaten direnak kontatzen dute nola han egoten diren zure esperoan, ongi jantzirik, nerbiosturik... aunitzek urte osoa pasatzen dute han sarturik. Beraz, guretzat tiki-keria bat dena beraientzat bizia da.

MODA DESFILEAK

# Gure dendak ezagutzeko modua

*Nafarroako Iparmendebaldean bizi garenok urtean 3.551 milioi pezeta gastatu genituen iaz Nafarroatik kanpo, hau da, gastu osoaren %14. Honeri, Iruña aldean egindako erosketak gehitzen badizkiogu, aisa antzematen ahal da eskualdeko dendak alde batera utzi eta kanpoan erosteko joera handia dela.*

*Baina, ba al dakigu gure dendek eskaintzen duten generoa nolakoa den? Egitan gure denda tikietan baino merkeagoa al da hiri handietako hiper handietan saltzen digutena? Hori jakiteko ballagarriak suerta daitezke azken urteotan gurean furi-furian dauden moda desfileak. Almandoz, Etxalar edo Arantzan egindako moda desfileen bidetik heldu zaigu abenduaren 3an Doneztebeko kiroldegian eginen dena. Ikusi, ikasi eta gero, jakinaren gainean, gehien komeni zaizun lekuan erosi.*

TESTUA: AITOR AROTZENA  
ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA

**D** enok dakigu denda batek aparteko bizi ematen diola gure herriari. «Dendak non, bizi

han» leloa aditu dugu sarritan, baina, halere, aunitzek herrian bertan baino nahiago izaten dute kanpoan erosi. Hipermerkatu handietara egunpasa joan, eskura-eskura, bata bertzearen ondoan dauden dendetan kuxkuxeatu, zinean pelikula ikusi eta handik ateratzerakoan afaldu. Irunen eta Donostian, adibidez, teilatatu azpi berean egiten ahal diren gauzak dira. Joan den urtean, 3.551 milioi pezeta gastatu zituzten gure es-

kualdeko erosleek Nafarroatik kanpo egindako erosketetan, gastatutako guztiaren %14, hain zuzen. Hone-laxe ageri da Ernst & Young enpresak, Nafarroako Gobernua Merkataritza Garbarari emandako mandatua betez egindako txostenean. Gehienek Irunera jo zuten (%58) eta bertze %20ak Donostia aukeratu zuten. Baztan eta Leitzaldetik batzere Iruñera joaten direnak gehitzen baditugu, kontuak garbi daude: eskualdeko dendetatik kanpo egiten den erosketak kopurua gero eta handiagoa da. Joera hori baretzeko zenbait kanpaina egiten ari dira gure dendariak. Joan den urtean, «Hemen bizi, hemen erosi» kanpaina burutu zuten



Herriko edo hurbileko modeloak ikusteak xarma berezia ematen die desfileei.

Bertizko Partzuergoko Merkataritza Elkartek.

## Abenduaren 3an moda desfilea Donezteben

Bertzelako ekimenik ere izan da: azkeneko urteetan moda desfileak ugartu dira eta udaberri honetan Bidasoako Ezkongaien Feria Etxalarren, Bortzirietako lehen moda desfilea Arantzan eta hirugarren udaberriko

feria Almandozen izan genituen, kasik segidan. Ildo horrerik segituz, negu parteko nobedadeak ikusteko aukera izanen da abenduaren 3an, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera Doneztebeko kiroldegian eginen den moda desfilean. Kulturkari arduratu da honen antolaketaz. Kulturkariko Karmele Tolosak adierazi digunez, «Udazken eta neguko eskaintza ikusteko berandu



Adin eta estilo guzietako jendearendako arropa eta osagarriak plazaratzen dira desfileetan.

*xamar izaten ahal da, baina Eguberrietako eskaintza ikusteko garaia aproposa da. Gainera, aurten besta eguna baldin bada ere, San Frantzisko egunean hemendik Gipuzkoara erosketak egitera joateko joera dago eta horrek mina egiten die hemengo komertzioei».*

#### Desfileen helburu bakarra ez da saltzea

Erostera kanpora joateko joera hori baretzeko modua izaten ahal dira moda desfileak eta feriak. Yoan ileapaindegiko Mari Jose Zozaiaren ustez, «feria hauek laguntzen dute hemen dagoen aukera erakusten, eta gero jendeak erosteko orduan ez du horren aisa jotzen kanpo aldera». Dena den, helburu bakarra ez da saltzea. Doneztebeko Mari Cruz lenterriako Elena Erasok erran digunez, «erakutsi nahi da lehenagoko "herriko denda txoa" historiara pasatu zela, eta argi utzi hemengo komertzioak ere konpetitzen ahal dugula, ez dagoela beti kanpora joan beharrik».

Gure inguruko denda eta komertzioek eskaintzen duten

aukera ikusita aunitan harritua gelditzen omen da jendea. Arantzako Amaia ileapaindegiko Amaia Apezetxeak Bortzirietako lehen moda desfilea antolatu zuen. Berak adierazi digunez, «ni bederen harritua gelditu nintzen zenbat gauza iditugun arropetan eta gainerakoetan, eta pentsatzen dut publikoari ere igaltsu gertatu izanen zitzaioela. Bertakoari ez diogu hainbertze garrantzi ematen eta kanpokoa gehiago baloratzen dugu. Bertan ere aukera zabala badagoela erakusteko modua dira desfile hauek».

Desfileak, bertako komertzioak elkarfanean hasteko modu polita dira. Bilerak izaten dituzte desfileak antolatzeko eta iritziak elkar trukatzeko modua izaten dute. Amaia Apezetxeak dioen bezala, «horrelakoetan bederen elkartzen gara, bertzenaz guttitan». San Frantzisko egunean Doneztebeko kiroldegian eginen den moda desfilean izanen da eskualdeko komertzioen eskaintza ikusteko aukera berri bat. ■

## «Neguan eta hain leku handian egiten den lehendabiziko desfilea izanen da»

**Inguru honetan aurten egiten den laugarren desfilea da. Horren beharra somatzen zen?**

Orain arte egin diren feria guziak udaberrian egin dira. Udazkenean ez da horrelakorik egin eta proba moduko bat da. Gainera, modu ezberdin batean antolatu nahi izan dugu; orain arte jatekietan egin dira guziak eta horrek jende kopurua mugatu egintendu. Jendea larri ibiltzen zensartzeko eta barne-

an ere estu xamar egoten da eta ez zuen gustora ikusten. Doneztebeko kiroldegian arazo hori moldatuko da.

**Jendeak inguru honetan erostea lortzeko modu bat dira desfile hauek?**

Jendeak herri an bertan duena ez du

ezagutzen eta zuzenean kanpora joateko ohitura du. Gero, aunitan bueltan etorri eta ikusten du ondoko dendan gauza beretsua duela eta gainera, merkeago. Hasteko, herrietan zergak hiritan baino tiki-

kiagoak direlako. Bertze gauza kurioso bat ere gertatzen da dendan artean: beldur gehiago diote ondoko kompetentziari hiri handietakoari baino. Nire ustez kompetentzia handiagoa da kanpokoa, baina jendeak hori ez du asumitzen. Akaso, jendeak ez du sobera ongi ezagutzen bertan duen eskaintza...

Jendea harritua gelditzen da beti desfileetan. Ez du uste honelako gauzak daudenik hemen bertan. Kanpoan aukera hobea eta gehiago dagoela uste du eta hori ez da horrela. Hemen komertzio ona dago. Aukera handia dago, batez ere arropan. Modu guzietako markak daude, merketik hasi eta garestienera. Dendetik topatzen ahal duzu.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tlnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

**Internet:**<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>**e-mail:**[ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.**Presidentea:** Pello Apeztekoa.**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.**Administratzailea:** Amaia Goia.**Erredakzioa:** Aitor Arotzena,

Asier Gogortza.

**Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Bernuet, Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena,

Aitor Arotzena, Asier Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

**Inprimategia:** Gertu.**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkarteak,

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du**GAURKOTASUNEKO GAIA****Behi eroen eritasunak badu eraginik gure inguruan?****Behikiaren orde zerrikia eta aretzea gehiago erosten du orai jendeak**Jean Pierre ARBURUA  
Harakina, Sara

Frantziako telebistan eta ez da bertze konturik orai: behi eroen eritasuna.

Horregatik, jendeak gutxiago erosten du eta horren orde zerrikia eta aretzea edo oilaskoa erematen du. Dena den, guk behi haragia Zuraidetik ekartzen dugu, ez dugu kampotik ekartzen haragirik. Beraz, Frantziako Gobernamentuak hartu dituen neurriak, hau da, hexurra duten haragi puskiak saltzea debekatu edo azienda hilen pentsuu debekatu ongi daude, baina hemen ez dute horrelako eraginik, hemen ez baita inoiz horrelakorik egin. Egia da jendea beldurra dagoela, nik uste sobera indarrarekin aipatu izan dela, egun guziz ari baitira telebistan, radioan... Nahitaez beldurra bada baina hemengo haragiak ez du dangerik batene, bemen bereko haragia ibiltzen dugu. Nik ez dakit Pariseko denda handietan zer salduko duten, baina hemen behi haragia lasai erosteko erraten ahal dut. Zernahi gisaz, atera honek gauza ona ekarriko du: haragia kontrolatu egiten da eta ez da edozer gauza salduko. Jendeak galde egiten digu nongo haragia saltzen dugun eta guk paperak erakusten dizkiogu. Iparraldeko eskoletan ere debekatu egin dute behi haragia ematea, beldur hori hor dago, baina nik uste fite pasatuko dela.

**Bezereok badakite bertan hazi eta hildako aretzeen haragia erosten dutela**Juanon PRIETO  
Harakin eta abeltzaino

Inguru honetako harategietan erosten dutenek bada-kite bertan sortu, hazi eta hildako aretzeen haragia jaten dutela. Beraz, ez dugu aretze haragiaren salmentan behera-kadarik somatzen, alderantziz bai-zik. Zerbait gehiago saltzen dugu, akaso. Izan daiteke supermerkatu handietan erosten duen norbait herrietako harategi tiki-tan erostea, konfidantza gehiago dutelako: galdegiten dizute ea nongo haragia den, non sortua, nola hazia, non hildakoa. Guk informazio hori ematen ahal diogu, baina bertze zenbait lekutan ez. Harakina ez ezik, abeltzaina ere banaizenez, nere aziendak kalitate onenekoak izaten dira. Bi arrazakoak ditut, ile horia eta pirenai-ka eta Nafarroako bi elkartetako kide naiz. Bere arraza garbitasuna segurtatzen duten paper guztiak dituzte azienda hauek. Erosteko garestieagoak izaten dira, baina gero, handiagoak dira, haragi gehiago izaten dute eta kalitate hobekoa gainera. Janaria ere guztiz naturala ematen diogu, Betelun egiten duten pentsu naturala, artoa, garagarra eta soja-rekin. Hazteko behar duten mineralak izaten dituzte, baina ber-terrik ez. Hildako aziendekin pentsu egitea pekatua da gero!

**Bertako produktuei estimazio gehiago izan behar diegu**Korbil EZEIZA  
Kontsumitzailea. Areso:

Kontsumitzaile be-zala kezka sortzen dit behi eroen eritasunak, nola ez.

Dena den, inguru honetako harategietan erosten dut, Leitza-n batez ere, eta kontrolatuagoa egonen dela uste dut, badakit haragia hemen inguruko baserrietatik ekartzen dutela eta horrek lasaitzen nau. Pentsutik heldu omen da gaitza eta hemen larreen gehi-ago ibiltzen direla uste dut. Horregatik, erosterako orduan ez dut ezer aldatu. Behi haragia erosten segitzen dut berdin-berdin. Bertako haragia gehiago erosteko balioko du arazo honek. Izan ere, askotan somatzen ditut bertako baserriarrak bildotsak ezin salduz edo mixeria baten truke saltzen, kalidade aldetik askoz hobek direla dakigunean. Gure produktuei estimazio gehiago izaten ikasi behar dugu eta ez edozer gauza erosi, merkeago delako. Badakit Iparraldean eta orain Nafarroako ikastetxeetako kome-doretan behi haragia ematea debekatu dutela eta uste dut neurri egokia dela. Etxerako zer eta nondik erosten dugun badakigu, baina eskoletara nondik ekartzen duten kontrolatzea zailagoa denez, ongi iruditzen zait hori egitea. Gurasoak behintzat lasaigo gelditzen gara.

ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du**ARTEKARI  
TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

• Asteleneretik asteazkenera 9-13tara eta 15-19tara

• Ortzegun eta ortziralean, betatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittria 6 • Tlnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☎ Langile Autonomoak
- ☎ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☎ Lan-kontratarako laguntzak
- ☎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☎ Diru-laguntza ezberdinak
- ☎ Kontabilitateak
- ☎ IVA eta IRPF
- ☎ Errenta aitopenak
- ☎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☎ Bideragamitasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**Baztango Kirikoketarien azalpena**

Joan den ortziraleko Nafarkarian, azaroaren 3an kari-karatutakoan eta Rakel Goñi kazetaria egile zela, kirikoketa bestari buruzko zenbait «baieztapen» zuzendu nahi ditugu.

Akats hoiaren artean kirikoketaren jatorriari buruzkoa nabarmendu nahi dugu. Testuan, kirikoketa, taldeki-de baten asmakera bezala agertzen da. Gezurra, kirikoketari buruzko hainbat erreferentzia badira, besteak beste: «Obras Completas del P. Donostia» I liburukian 71-90 orrialdean, baita II liburukiko 119., 186. eta 187. orrietan erramodu batez. Halaber, J.M. Beltranez argitaratutako «Euskal Herriko Soinu Tresnak CD-Romean, baita honen artikuloren batean ere.

Azkenik, Jo ala Jo taldeko kideek eta Baztango Kirikoketariak Baztanen egindako alorreko lanean, kirikoketari buruz bildutakoak (ganden urteko kirikoketa bestan erakutsiak), kirikoketaren izaira historikoa erakusten dute. Kasu honetan, bertze auzinetan bezala, lan bat eta bereziki lan tresna batek, bestarako aitzaki eta soinu tresna gisa erabiliak izan dira, kirikoketaren kasuan ondorengo kantarekin: Kirikoketa kirikoketa kirikoketa koketa koketa

sagarra jo dela  
sagarra jo dela  
sagarra jo dela  
jo dela jo dela  
Bestenik gabe, bakoitzari berea. Agur.

MUEL ORTEGA

JO ALA JOYO OROZKARI BEZALA

\*\*\*

**Coloradotik Sunbillara bisita**

Etorri ziren, Coloradotik, Sunbillar Joxantonio -Txangonekoa-, Joxemari eta Patxiko -Arretxerbordakoak-. Pozik ibili ziren euren familietan eta bai eta betiko lagunekin (usoak, trankil utzi zituzten nahiz eta paretazaharreen egun batzuk pasatu!)

«Ulubeltzan», batzuetan ibilginen elkarrekin. Behin bixarro eta intxaurrak jaten

ere. Giro ederrean! Lehengo lagunak alpatzen, oraingo gauzetaz arduratzen...! Itzuli dira, hango familiengana, gustura ere. Halaz ere, Joxantonick, bere bilobaren argakia utzi digu: Patxiku Antonio. Bronco (hango Lovelandeko futbolariak) bat izango da, baina euskaldun sutua egiten saiatu behar dela erran digu bere ataubi Joxantonick.

Mundu osoan barrena gure euskaldun jatorrak daude! Aurrera denoi!

A.Z.

(TTPI-TTAPAK IRAKURLEA

DONOSTIATIK)

\*\*\*



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENZIA**Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, isuripua eta bizitza aseguruak

**Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

**Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...

**Inmobiliaria**

• Baserri, bords, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

**Gestoria**

• Italgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santago 15 - Tímoa eta faxa: 948 560014 - ELIZONDO

**Maderas GOMEN**

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • t. 948 580 645

**egin zaitez harpidedun**

URTE OSOKO TARIFA (BEZ hartze):

Hego Euskal Herria 47.500 • Ipur Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak

N.A.N.

Títulu:

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Ordainbete mota:

Bankua Taloa Transferentzia Giro postala 

(Banku bidez ordaintzekoak besezeko) Banku edo aurverki kutxa

Erreklamazioa Sukurtzala K.D. Kontu berbakia 

Titulera

Títulu:

Helbidea

Harpidedun-orria bete eta bidali helbide honetara:

Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias 00ko azaroak 17

«Eguneroko elkarbizitzak gorabeherak sortzen ditu gure herrietan, hori belarunaldiz belarunaldi errepikatzen da. Guri gertatzen zaiguna okerrera dela pentsatzen dugu, baina leku guzietan arazoak daude eta denak berdintsuak dira».

Juan Bautista IRATZOKI  
Leizako apezka  
Diario de Noticias 00-11-17

dituenaren azalean ere paratzen naiz. Jendeak ordaintzen badu ikuskizuna ikusteko eskubidea du. Logikoa da. Profesionaletako pilotak zolean ibili behar dira, baina txapelketa honetan hegan egiten duten pilotak ikusi ditugu».

Inaxio ERRANDONEA  
Aldizkako pilotaria  
Diario de Navarra 00-11-22

«Nik nire interesak defenditzen ditut, baina partidua ikusteko mila duro ordaindu

- ◆ **Igantzin sortutako arraioztarra edo Arraiozen bizi den igantziarra?**
- ◆ Arraiozen bizi den igantziarra.
- ◆ **Zortzi urtez Herri Kirol Federazioko lehendakari: aspertua edo gustoa hartu diok karguari?**
- ◆ Gustora eta aldi berean, aspertua baino gehiago nekaturia.
- ◆ **Zortzi urteotan, Federazioak lortu duen gauzik onena?**
- ◆ Federazioa asentatzea, Euskal Herriko Federazioan sartzea eta txapelketak urtero antolatzea.
- ◆ **Txapeldunak 51 urte... Hiltzera doan kirola da aizkora?**
- ◆ Bertze maila apalago batean segitzen ahal duen kirola da aizkora.
- ◆ **Pilota telebistak berpiztu du. Herri kirolarekin gauza bera egiten ahal da?**
- ◆ Laguntza handikoa izaten ahal da telebista.
- ◆ **Zergatik desagertu dira herriz herri hamarkada haseran zeuden herri kirol talde gehienak?**
- ◆ Maila igo delakoz eta honek prestakuntza gehiago eskatzen du. Taldeburuak aspertu egiten dira eta hauek utzitakoan desagertzen dira taldeak.
- ◆ **Noizko herri kirolak Olinpiadetan?**
- ◆ Sokatira garai batean olinpikoa izan zen eta hortan saiatzen ari dira orain ere.
- ◆ **Miresten duken kirolari bat?**
- ◆ Bat baino gehiago: Indurain, Retegi II, herri kirolean Mindegia.
- ◆ **Zein duk hire ustez kirolik gogorrena?**
- ◆ Nahiz eta probatu ez dudan, aizkora izanen dela iruditzen zait.
- ◆ **Eta gustokoena?**
- ◆ Esku pilota, dudarik gabe. Etxean beti segitu dugun kirola da.
- ◆ **Garraioak baino etorkizun hobea du herri kirolak?**
- ◆ Garraioaz, nahiko lanarekin bada ere, jende aunitz bizi da. Herri kirolek bizpahiru bertzerik ez.



Joxelu RETEGI  
Herri Kirol Fed. lehendakaria  
ARRAIOZ



PAGOLA  
TXISTORRAREN  
IZENA

© 948 630 054  
Alzateko Plaza, 2  
BERA

**Lanchas**

- Parketak • Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



**ZALAIN**  
IATETXEA

Zalain Auzoa  
© 948631106  
BERA

EGUNERO, MENUA ETA KARLA

**Boda eta bankoteak ematen dira**

**PIKABEA**  
Molinero drogerian  
galdetu

*pinturak*

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lizpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**belardenda**  
Mediku naturista  
kontsulta  
Masajista

*Haritzo*

Legia I, behea • BERA • © 948 630652

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta baiminarekin

Terraza eta  
plater Jantzi-Artea

Plaza Berria, 13 • (948) 627547 **LESAKA**





### Eskualdeko 194 ikaslek hartuko dute parte iraupen eski kanpainan

Isaba eta Otsagiko pistetan egingen diren Aste Zurietan sei ikastetxek eman dute izena

TTIPI-TTAPA

Erronkari eta Zaraitzuko pistetan egingen diren Aste Zurietan Lehen Hezkuntzako seigarren maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko eskualdeko 194 ikaslek parte hartuko dute. Aste haurtan, iraupen eskian arituko dira neska-mutilak, helduden urteko urtarrilaren 7tik martxoaren 30era. Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak antolatu-



tzen ditu aste hauek, Isaba eta Otsagiko Udalen eta Nafarroako Kutxaren laguntzaz. Goizean, iraupen eskia ezagutzeko eta hobetzeko klaseak izanen dituzte eta arratsaldetan bertzelako ekitaldi osagarriak egingen dituzte. Urtarrilaren 7tik 12a bitarteko astetan, Elizondoko San Francisco Javier eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxeetako hamalauna ikasle joanen dira Isabara. Egun horietan, Baztan ikastolako 26 ikasle Otsagira joanen dira.

Urtarrilaren 21etik 26rako astean, Leitzako Amazabal ikastetxeko 32 ikasle joanen dira Isabara. Otsailaren 4tik 9ra, Doneztebeko San Miguel ikastetxeko 44 neska-mutil joanen dira Otsagira. Otsailaren 25etik martxoaren 2ra, Berako Labiaga ikastolako 53 ikasle izanen dira Isaban eskiatzen. Martxoaren 11tik 16ra, azkenik, Goizuetako Andres Narbarte «Xalto» eskolako hamaiika ikasle joanen dira Isabara.

tsaldetan bertzelako ekitaldi osagarriak egingen dituzte. Urtarrilaren 7tik 12a bitarteko astetan, Elizondoko San Francisco Javier eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxeetako hamalauna ikasle joanen dira Isabara. Egun horietan, Baztan ikastolako 26 ikasle Otsagira joanen dira.

Urtarrilaren 21etik 26rako astean, Leitzako Amazabal ikastetxeko 32 ikasle joanen dira Isabara. Otsailaren 4tik 9ra, Doneztebeko San Miguel ikastetxeko 44 neska-mutil joanen dira Otsagira.

Otsailaren 25etik martxoaren 2ra, Berako Labiaga ikastolako 53 ikasle izanen dira Isaban eskiatzen.

Martxoaren 11tik 16ra, azkenik, Goizuetako Andres Narbarte «Xalto» eskolako hamaiika ikasle joanen dira Isabara.



### Traktoreen ITVa herriz herri

BERA	Azaroak 30
LESAKA	Abenduak 1
ETXALAR	Abenduak 4
IGANTZI	Abenduak 5
SUNBILLA	Abenduak 11
DONAMARIA	Abenduak 12
URDAZUBI	Abenduak 13-14
AMAIUR	Abenduak 15
ERRATZU	Abenduak 18
AZPILKUETA	Urtarrilak 8
ARIZKUN	Urtarrilak 9
ELIZONDO	Urtarrilak 10
LEKAROS	Urtarrilak 11
IRURITA	Urtarrilak 12
ZUGARRAMURDI	Urtarrilak 15
GARTZAIN	Urtarrilak 16
ARRAIOZ	Urtarrilak 17
ZIGA	Urtarrilak 18
BERROETA	Urtarrilak 19
ALMANDOZ	Urtarrilak 22
NARBARTE	Urtarrilak 23
ORABIDEA	Urtarrilak 24
ORONOS eta OITZ	Urtarrilak 25
ITUREN	Urtarrilak 26 - 29
URROTZ	Urtarrilak 30
BEINTZA-LABAIEN	Urtarrilak 31
SALDIAS	Otsailak 1
EZKURRA	Otsailak 2
ZUBIETA	Otsailak 8

**LEGARRA**  
Legarra, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak esprelean ere egiten dira

**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 699 - BERA

**bortzirudi**  
BERA

FOTOKOPIAK • ENKUADERNATZEAK • PLASTIKAZIOAK • FAXA • E-MAILA • SRANDEIRA

PAPERTEGIA

ARGAZKI MUNTAK

DISKINU • GUMIBOIA • INPRINTA LANAK • SEJIGUERIA

ETIKETAK • ETIKETAK • ETIKETAK • PUBLIZITATIA

Eztegara 26 behea • Tel.-Faxa: 948 63 15 21

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763



**Hauteskundeak Toki Ona institutuan**

Nafarroako 2. Zikloko ikastetxe publikoek, horien artean Berako Toki onak, hauteskunde egunak izan dituzte joan den astean. Bi urtetik behin egiten dituzte bozketa hauek, eskola kontseiluko ordezkariak aukeratzeko. Ikastetxearen hezkuntza proiektua eta orokorrean zentruaren funtzionamendua finkatu eta jarraitzeko sortzen den organua da eskola kontseilua.

Lan hau burutzeko erabaki garrantzitsu aunitz hartzen ditu bere gain: egutegia osatzea, zuzendaritza aukeratzeko, urteko programazioa edo aurrekontuak onestea, baita instalazioen ongizatea bermatzea ere.

18 partaidez osatzen da: presidente lanak ikastetxeko zuzendariak betetzen ditu, idazkaria zentruko idazkari bera da, bi ikasketaburu, irakaslegoaren 6 ordezkari, gurasoen bertzeko bi ordezkari, guraso elkarteak izendatutako bat, ikaslekoak aukeraturako hiru, langileen ordezkari bat eta bukatzeko udalaren ordezkari bat.

**Ur-zikinen hodiak aztertu eta moldatzen ari dira herri guzian**

Lur-azpiko bideo-kamerak erabiltzen dituzte hodian egoera ikusteko

ASIER GOGORTZA

Ur zikinak garraiatzen dituzten hodian egoera aztertu eta hondurik daudenak moldatu. Hori da Berako-Easo enpresak Berako karraketan azken egunotan egiten duena. Seguraski ikusi izanen duzue kamioi urdinxka hau Altzate aldeko karraketan lanean.

Bada Altzate ez ezik, herri guziko hodiak aztertzeko kontratatu Udalak, hau da, lur-azpiko bide hauek gainbegiratzeko. Lehenik robot itxurako gurgildun kamerak erabiltzen ditu enpresa honek tubotan barrera sartu eta egon litezkeen matxurak edo itxausurak aur-



Gisa honetako irudiak jasotzen ditu kamioleko kamarak.

kitzeko. Ondotik resina posidilkoa deritzon produktu batekin zuloak estali egiten dituzte.

Enpresa honetako Martin Berakoetxeak esplikatu digunez, arazo dexente dugu Beran hoditeriarekin. Izan ere «gehienak aski zaharrak dira eta ez daude sobera ongi jarriak, be-

raz, ura sartu eta ateri egiten da nonahi».

**"NAFARROA: IRAGANA ETA GEROA"**

Abenduaren lehen libururik honen aurkezpena egingen da arratsaldeko 7etan Liburutegian. Ifaiki Petxarroman idazle gipuzkoarraren lehen-dabiziko lana da histo-

ria liburu hau. Espidobaita elkarteak antolatuta du solasaldia.

**UDAL ZERGAK**

Abenduaren 15a arte dago zabalik 2000ko Kontribuzio-Tasen ordainketa egiteko borondatezko epea. Ondotik interesekin kobratuko da.

**Europako hainbat herrialdetako ikasleak Labiaga ikastolan**

Socrates izeneko programaren bitartez esperientzia trukaketa egingen dute Berako ikasleek Europatik etorritako bertzeko zenbaitekin. Suedia, Polonia, Errumania eta Italia, eta batez ere Portugalen etorriko dira irakasle eta eta ikasleak.

Astearten ailegatu dira, eta aste-hondarra bitarte egonen dira hemen. Bertzeak bertze Lesakako Feriak eza-gutzerara eramaten dituzte. Ez harritu, beraz, herrian barna haur berriak ikusten badituzue.

Pasaden igande honetan, bertzalde, Labiaga ikastolaren haur-tzaindegiaren inaugurazio ekitaldia egingen.

**LABEZAR**  
© 948631076 • BERA

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak  
**ERREKALDE ostatua**  
Tfnoa: 948630259 - BERA

**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

© 948 63 1462  
Altzate 1 • BERA  
**Xirgil**

# Adineko jendea etxean zaintzeko ikastaroa antolatu du Herri Eskolak

Abenduaren 5a arteko epea izanen da izena emateko

Arron AROTZENA

Ez dira geldirik ego- tekoak aurtengoan Herri Eskolakoak eta ikastaroak bata bertzearen ondotik antolatzen ari dira. Masala eta mendia- ri eta naturari buruzko argazkigintza ikastaroak akautu berriak direnean, bertze bat antolatu dute Lesakako Udala- ren laguntzaz. Oraingoan, adineko jendea etxean zaintzeko ikastaroa antolatu dute eta Ama- goia Muruamendiaraz geriatría medikua izanen da irakasle. Bi orduko hiru saio egingen dituzte, abenduaren 12, 14 eta 19an, arratsaldeko 5etatik 7etara Tanti- rumairu ikastolan. Izena abenduaren 5a baino lehen eman behar da Iza- rra okindegian (948 637855 telefonoan), ho- rretarako 1.500 pezeta ordainduz. Emanen di- ren gaiei buruzko in- formazio gehiago nahi izanez gero, okindegian bertan hartzen ahal di- ra esku-paperak.

## Baztanera joan dira Beti Gazteren argazki lehiaketako sari nagusiak

Elizondoko Juan Lameriñas Cambrone- rok aurkeztutako «Argitza 2» txuribeltzeko argazkiak irabazi



## Bortzirietako feriak ortzegunean

Aldizkari hau esku artean duzunerako pasatuak izanen dira seguraski Bortzirietako feriak. Urtero bezala, goizeanazienda ugari ikus ahal izanen da plazan eta zer erranik ez, kasik herri guzian hedatuko ziren saltzaille postuak. Arratsaldean, pilota partidak eta musika.

Artxibokoa

du Beti Gazte elkarte- ak bederatzigarren al- diz antolatutako argaz- ki lehiaketaren sari na- gusia. Bigarren saria ere Baztanera joan da, Ariz- kungo Lander Goffi Iri- goienek eskuratu baitu «Udazken kolore» ko- lorezko paisaiarekin. Kirol argazki onenari emandako saria lehia- keta honetako aspaldi- ko ezagun batek esku- ratu du, Bergurako Be- nito Canterok, «Aguja roja» argazkiarekin.

Joan den urteko gel- dialdiak eragina izan du argazkilarien animoan,

argazki gutxiako aurkez- tu baitira lehiaketara. Guzira, 21 argazkilarie- ren 62 lan aurkeztu di- ra. Argazkiak Beti Gaz- teren egoitzan ikusteko aukera dago oraindik.

## Herriko ura edateko ona da

Nafarroako Gober- nutik igorritako txosten batean herriko ura edateko txarra zela ageri zela eta EHk egindako gal- derari erantzun zion az- keneko batzarrean alkateak. Bere erranetan, «funtzionarioak orde- nadorea tekletzerako-

an izandako deskuido batek eman zuen emai- tza hori. Gainera, eus- karaz egindako itzulpe- nean ere bada bertze akats bat». Txostena osoa irakurrita, «egun bakar batean ere ez de- lu edateko ur txarrik izan ikusten da», zioen alkateak, «beraz ez da neurririk hartu behar». EHko zinegotziak gal- derarekin ez zuela inor mindu nahi eta ura ona izateaz pozten zela erran zuen, «baina txostene- an txarra zela agertzen zenez, normala da gu- re kezka azaltzea».

## flash

♦ **Rafa Maritxalar** korrikulariak hama- bigarren postua lor- tu zuen Behobia- Donostia lasterketan. Ordu bete eta bortz minutu eskas behar izan zituen ibilbidea burutzeko. Bertze- lesakar aunitzek ere parte hartu zuen las- terketan.

♦ **Oihan probetxamendua** Elozegi, Errenga eta Domiko inguruan Udalak enkantean atera zuen oihan lo- tea Leonet enpresak probetxuko du, 57.850.000 pezeta- ren truke.

♦ **Espainiako bandera Konstituzionala** Espainiako Gober- nuak Nafarroan duen ordezkari zari eska- tu dio Udalak. Hori dela eta kontzentra- zioa deitu zuen udal- batza baino lehen he- rriko ezker abertza- leak, «Ikurriña bai, espainola ez» lema- pean. Plenoak ban- dera eskatzea onar- tu zuen, EAJ-EAko zinegotzien aldeko botuekin eta EHren aurkakoarekin.

♦ **Emakumeen Munduko Martxari** buruzko akordio pro- posamenaren aurka bozkatu zuen Uda- lak. EA-EAJko sei zinegotzik aurka bo- tatu zuten eta bat abs- tenitu egin zen. EH mozioaren alde ze- goen.

Lurrindia  
Manian  
endiberrri  
Estetika  
Belheta Plaza 8 C. 94863771 • LESACA

XATURETXEA  
7454  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESACA

ANITA  
Biltza 41 • 948 637518 • LESACA

KATTU  
ostatu - jatetxea  
Plaza koabinatuak eta menuak  
© 948637573 • LESACA

IRU BIDE  
ESTETIKA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESACA

**ETXALAR**



**Aldalurko Bordako Juanito eta Juanitaren Urrezko Ezteiak**

Ez da denbora alferrik pasatzen! Bi argazki hauetan ikusten ahal da hori. Izan ere, 50 urte egin dituzte ezkondurik azaroaren 15ean Juanito Maia eta Juanita Ariztegiak. Zorionak!

**Etxalarko usoa ezagutarazteko logotipoa**

Usazaleek bazkaria egingen dute uso-denborari bukaera emateko

JOSEBA ETA NEREA

Etxalarren hartzen diren usoen salmenta nahiko ongi joan da beti. Hala ere, bertako usoen ezaugarriak agertzeko eta bide batez Usategiako nahiz herriaren publizitatea egiteko usozaleek logotipo bat egin dute. Denbora luzez afera honen inguruan bueltak ematen ibili ondotik jatorri izendapena erakusten duen logotipoa egin dute. Egilea Lorpeneko marketoneko arduraduna da,

beti ere Gerardo Danborienaren begiepean. Lana aitzinera eramatea kosta den diru guziaz udalaren esku joan da. Hemendik aitzinera sareetan ehizatutako uso guzietan argazkian ageri den pegatina izan dute.

**Postari buruz**

Aitzineko batean erran bezala Etxalarko auzoetan sinadura-bilketa burutu zen. Honegatzen gain, auzoz auzo bilerak batzuk ere egin ziren, buzoien kokapena

zehazteko bertzeak bertze. Hala ere, ez diote bide honi ekinen kontsumoko batzorde arbitralaren erantzuna jaso arte. Honek 3 hilabeteko epea du erabaki bat hartzeko. Beraz, espetu bertzerik ezin dugu egin.

**Usozaleen bazkaria**

Ohitura bihurtu den bezala eta uso-denborari amaiera on bat emateko, Etxalarko usazaleak Iparraldekoekin elkartuko dira abenduaren 2an elkarrekin bazkaltzeko. Hala ere, baz-



kaldu aitzinetik Sarako usazaleek, bildutakoei, bertako Usategia erakutsiko die eta baita aperitibo bat eman ere. Bazkarian herri hauetako usazaleak bilduko dira: Lekunberri, Behorlegi, Napal, Gatagorena, Oxkixe, Lantabat eta Sura (Iparraldekoak), Etxalar eta Lanne (Bearn). Bildutako usoen arabera klasisifikazio bat egingen dute, urteko balantzea zehaztuz.

**Usoaren Eguna Larraburuan**

Zerbaitegatik bereizten bada Etxalar, usoen gatik da. Horrela bada, aspalditik burutan zeukaten eguna antolatuzten Larraburua elkarte-koek; Usoaren eguna. Urriaren 29an burutu zen eta Anttoniok presaturiko usoa jan zituzten otordu eder batean. Bazkalondotik, bildu ziren 67 lagunak dantzan aritu ziren Ramontxoren doinuen erritmorra. Bertze urteetan segitzeko moduko egun ederra.

**Usoa kooperatibako afera**

Azken hilabeteetan aldatuta batzuk gertatu dira "Usoa" kooperatibaren. Juntaren eta bertako kontu-eramailearen (Jose Joaquin Zelaia-taren) arteko ikuspuntu ezberdinek sorturiko tirabirak direla medio 15 urtez lan honetan egon den langile honek dimisioa aurkeztu du juntaren aitzinean. Honegatik, postu hau betetzeko administrari berri bat hautatu dute: Lesakako "Artekari" enpresa. Hala ere, honen lanak 2001. urtetik aitzinera hasiko direnez, urte bukaeraz arte, orain arte egondako Manuel Lanz eta Jose Joaquin berak segituko dute lanean.

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
 948635290 **ETXALAR**

**UDAZKENEKO MENU BEREZIA**

- Ehiza fiantze sorta
- Onddo nahaskia
- Aza pastela odolki bera bertako ilarren saltsa eta pikilo-pipemekin
- Usoa Etxalarko era zaharretan, galeper arraultzarekin
- Gazn eta arandano tarta
- Erriogako esteko ardo-botila

**3.500 pezeta**

**HARITZPE**  
 948635235  
 948635038

**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandía, 4 • **LESAKA**

**IGANTZI**

# Kultur Egunak abenduaren 6tik 9ra

Bertzalde, arrakastatsua izan zen I Napolitani eta Manhattan Quarteten saioa

**OSKAR TXOPERENA**

- Abenduaren 6an, arratsaldeko 8tan, Baratzondon, Lesakako "Mairu" taldeak eskeinuta, Fernando Arrabal-en "Trizikloa".

- Abenduaren 7an, arratsaldeko 5etan, Baratzondon, "Trolo" taldeak eskeinuta, "Tantaz-tantaz" antzeslana.

- Abenduaren 7an, arratsaldeko 8tan, Biltokin, "Txantxilipurdi" taldearen solasaldia, haurren jostailuei buruz.

- Abenduaren 8an, egun guzian erakusketan izanen da pilotalekuan, Biltoki Elkarteak antolatuta. Gaia: "Baserri eta etxetako tresna zaharrak eta produktuak".

- Abenduaren 9an, goizeko 11etan, "Arte-latz" taldearen tailerra



Joan den urteko Kultur Egunetako irudiak.

izanen da haurrentzat. Gaia: Paperaren birziklapena.



## Kantaldi saio arrakastatsuak

Baratzondora hurbildu zen jendea eta bertan entzundako txaloak kontutan hartuta, Igantziko Abesbatzak antolatutako ekitaldiak arrakasta izan zuela erran behar da nahitanahiez. "I Napolitani" eta "Manhattan Quartet" taldeek ordubeteko saioa eskeini zuten, kantuz eta umorez betetako ordua. Ondotik, ohiturari jarraituz, Biltokin bildu ziren afaltzera herritar eta kanpotarrak. Argazkian "Manhattan Quartet" laukotea.

Argazkia: Oskar Txoperena

- Abenduaren 9an, arratsaldeko 3,30tan, jolasak eta berendua izanen da haurrentzat pilotalekuan.

siko beharko duzue ea azkenean gauzatzen den.

Udazkeneko Biraren barranean, berriz, Baztango Dantzari taldearen ekitaldia izanen da abenduaren 3an frontoian, goizeko 11,30tan.

## Txiste afarria eta Baztango dantzarien emanaldia

Bertzalde, Euskara Baztordea abenduaren 9ko arratsean txiste afarria egiteko ahalegine-tan dabil. Karteletan iku-

Eta badakizue, pres-tatutako ekitaldiak eta egindako lana esker-tzeko modurik hobere-na parte hartzea da. Ateri denak etxe zuloatik!

«**USOA**»  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduerentzat  
pentzurik egokiena  
Tfno: 948635214  
**ETXALAR**

**BERRIZUN**  
ikinarria eraikuntza  
aldaketak eta despiezoa  
intzenimendu mekaniko  
Torno, fresadoreak, errektifikadoreak  
Igantziko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxe: 948 637508

**BERA**  
DESINFECCIONES  
Zure inguruak klase guztiko insektuak (jorrono, zinauro, amiarra, kokoa...) eta arato-egutuz perbitu nahi baduzu, deltu! Gu arduratuko gara hornetaz.  
Termita eta Pollen kontrako tratamendua  
☎ 948630155  
**BERA**

**ZUTABE**  
**BILTEGIA-SALMENTA**  
Moble eta Aitzinako altzariena  
ALMAZENEN PREZIOETAN  
Mobleak saldu nahi badituzu guri galdetu  
**ZUTABE**  
Otxango industrialdea 7 • Tel: 948 637579  
**LESAKA**

**ATM S.A.**  
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.  
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera  
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gilotina...)  
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)  
Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

# Bortzrietako ahozko tradizioa biltzeko deialdira sei proiektu aurkeztu dira

Epaimahaia abenduaren 13an bilduko da

ELIXABET ETA GARBINE

Bortzrietako Euskara Mankomunidadeak ahozko tradizioa jasotzeko beka deialdiari erantzunez sei proiektu aurkeztu dira. Honako hauek dira egitasmo horien egileak: Maite Laka eta Nora Iriarte; Nerea Mitxelorena; Asier Gogortza, Jon Abril eta Xabier Erkizia; Itziar Ortubia; Marga Matxo; Patxi Larretxea, Juinas Paul eta Txema Aldabe.

Epaimahaia abenduaren 13an bilduko da Arantzako Herriko Etxean, arratsaldeko 5etan. Epaimahaian Patxi Salaberri, Iñaki Camino, Paxkual Rekalde eta Patxi Iñigo izanen dira. Jose Ramon Amoros epaimahaiburu izanen delarik.

## Eskulan ikastaroa

Urtero negu partean



Urtero negu partean egiten den eskulan ikastaroan hasiak dira, baina oraindik bada izena emateko aukera.

Argazkia: ttipi-ttapa TB

egiten den eskulan ikastaroa jadanik martxan dago herrian. Ikastaro hau urritik martxora arte luzatuko da eta oraindik bada denbora bertan apuntatzeko. Irakaslea, bertze urteetan bezala, Mari Puy Urtasun

izanen da eta Club 10, Megaplan edo Urrezko Adina elkarteko bazkideek 500 pezetako laguntza izanen dute. Ikastaro hau egin nahi duenak 948 635 179 edo 635013 telefonora deitu beharko du.

## Herriko trafikoa zuzentzeko neurriak

Herriko trafikoa pixko bat zuzendu nahian, dagoeneko denok ikusi izanen ditugu egin diren lanak, hau da, abiadura moteltzeko ban-

duk, lurreko seinaleak, etab... Herrian barna polikiago ibiltzea dute helburu seinale hauek, denok baitakigu nola ibiltzen garen, batez ere plazatik aparkalekura doan zatian. Eskolako atarian segurtasuna handitu nahi da.

## Txoznaren bilketa

Nahiz eta herriko gazteok badakigun bestaz geroztik Herriko etxe gibelean dagoen txozna eta *Camara Agraria*-ko edariak bildu behar direla, zabarkeriaz oraindik hor daude. Hori biltzeko funtamentoa egin behar da, bertzenaz igual hurrengoan ez ditugu hor aurkituko.

## Mendi langilea

Juxto Larralde egiten ditu mendiko lan batzuk, Herriko Etxeak mendi langile gisara hartu baitu.



**MARTIKO**  
Gure baserrietako  
produktuak

© 948 625016 • Fax 948 625036  
Alkalaga Industrialdea • BERA

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donztebe**



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



Parrokia 11 • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 01 12

# Patxi Astiz jostunari omenaldia eskainiko zaio Santa Luzia egunean

Goizean meza eta bertsolariak izanen dira eta arratsaldean txotxongiloak

**PATXI IRIARTE**

Badira urte batzuk Doneztebeko Udala Santa Luziako feria berreskuratzen saiatzen ari dela eta aurten ez da guttiago izanen. Abenduaren 13rako egitarau zabalak prestatu da. Goizean meza emanen da eta Malerrekako artisauen lanak ikusteko modua izanen da. Joan den urtean bezala, garai bateko jostunei omenaldi xume bat eskainiko zaie eta aurtengoan Patxi Astizek jasoko du seinalea. Ondoren, bertso saioa eskainiko dute Manolo Arotzena eta Bittor Elizagoienek, Estitxu Arotzena gaitzaitzailearen erranetara. Arratsaldean, haurrendako txotxongiloak izanen dira.

## Euskal Kantu txapelketaren finala abenduaren 16an Bordatxon

Abenduaren 16an Bordatxo dantzalekuan egingen da Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala. Arratsaldeko 4,30etan hasiko



Duela bortz urte Doneztebeko kantariak izan ziren Euskal Kantu txapelketako finalean.

Arbibokoa

den azken saio honetara, Tafallan eta Agoitzen egindako kanporaketatik sailkatutako kantariak ariko dira. Finalaren ondotik, urteroko ohitura segituz, partaide guzietan afaria izanen da.

## Erreka Mendi taldea Piriniora joanen da abenduko zubian

Urtero bezala, Erreka Mendi taldeak abenduko zubia Pirinio aldera

joateko aprobeztatuko du. Beti bezala, hiru mila metroko mendi errexamar bat aukeratu dute aurten ere. Haseran, Gabarnie inguruan dagoen Taillónera joatea pentsatu zen. Baina hamabortz lagun biltzea espero da eta mendi horretan dagoen aterpea erabiltzeko arazoak sortu dira. Honela, Panticosa inguruan dagoen Garmo Negro mendira joko dute abenduaren 8, 9 eta 10ean. Izena le-

henbailehen eman behar da ohiko lekuetan.

## Herrilurra utziko zaio Retevisión-eri

120 metro koadroko herrilurraren erabilpena hamar urteko epeaz utziko dio Udalak «Retevisión Móvil, S.A.» enpresari. Bortz urtetan behin luzatu ahal izanen da kontratu hau, urteroko kanon boten truke. Helburua, telefonia mugikorraren estazio-base bat paratzea da.

## Medikuaren etxea erosteko lehen enkantera ez zen eroslerik aurkeztu

JAIONE ETA ALBA

Medikuaren etxea erosteko lehendabiziko enkantera ez da eroslerik aurkeztu, beraz, hurrengo udal batzarrean erabakiko da zein izanen den etxearen tasazio berria eta noiz egingen den hurrengo enkantea.

Bertzalde, traktoeren inspektzio teknikoak abenduaren 11n egingen da Sunbillan.

## Antzakaitz kultur taldearen bilera

Eguberriak abudo heldu direla eta Antzakaitz kultur taldeak bilera baterako deia luzatu du. Bilera larunbat honetan izanen da, abenduak 2, arratsaldeko 3,30etan Iturburun. Oientzero eta Errege Kalgataren prestaketa izanen dira bileran solastuko diren gai nagusiak. Bi ekitaldi hauen antolaketa hagitz garrantzitsua denez, ahalik eta jende gehiena hurbiltzea eskatu dute antolatzailuek.



Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

## Ibarrola Mertzzeria

Haurrendako arropa

0-14 urte

Pamplona kalea 6 - Doneztebe  
948450463

*veganako modelo berriak*

## ETXANDI TXOKO jatetxea

**Bazkari, afori eta gosariak**

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

# Kultur Egunak antolatu ditu Ibintza taldeak abenduaren 7tik 10era

Afizionatuendako argazki rallya egingen da larunbat honetan

IBAN ISASI

Azken urteotako martxari segituz, abendu hasieran Kultur Egunak antolatu ditu Iturengo Ibintza taldeak. Hasteko, larunbat honetan, abenduak 2, afizionatuei zuzendutako argazki rallya antolatu dute. Antolatzaileek hamabi gai proposatu dituzte eta gai bakoitzetik argazki bat ateratu beharko da. Parte hartzeko baldintza bakarria 14 urtetik goiti edukitzea izanen da, hori bai, mila pezeta ordaindu beharko dute izena ematerakoan eta profesionalek ezin izanen dute parte hartu. Izen ematea abenduaren 1a baino lehen egin behar da Herriko Ostatuan, Txokon eta Aurtizko Ostatuan.

Argazkilariek beraien makina eta karretea eraman beharko dute eta argazkiak Iturenen bakarrik ateratzen ahal dira. Goizeko 11.30etan hasiko da rallya eta karretea arratsaldeko 6etan entregatu beharko dira. Argazki hauekin erakusketa egingen da abenduaren 7tik 9ra egingen diren Kultur Egunetan.

## HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DIRA KULTUR EGUNETAN

Heldu den ortzegunean, abenduaren 7an, abiatuko dira Ibintza antolatutako Kultur Egunak. Arratsaldeko 7etan herriko trikitilariak karrikaz karrika ibi-



## Frontoiaren gibelean dagoen kaperak gauz itxiko da

Pilotalekuaren frontisaren gibelaldean, Latsaga auzora doaien zubiaren ondoan, dagoen kaperak ttikian pilotan edo squashean aritzeko kantxa ttiki bat moldatua dago. Azken aldi honetan, txikizio dextente egiten direla eta, gauz itxtea erabaki du Udalak. Honelako neurriak ez hartzeko denena dena errespetatzen ikasten hasi behar dugu.

Arribokoa

liko dira. Ordubete beranduago talo jatea izanen da Herriko Etxeko ganbaran. Arratseko 10.30ak aldera, zine emanaldia eskainiko da leku berean.

Ortiziralean, abenduaren 8an, umeendako tailerra eta ginkana izanen dira goizez. Eguerdiko herri bazkariaren ondotik, arratsaldean umeendako joakoak izanen dira. Herriko trikitilarien eskutik kalejira izanen da eta ondotik, zine emanaldia, marrazki bizidunen pelikula batekin. Eguna akitzeko, Senideak erakundeko ordezkari batek solasaldia eskainiko du.

Larunbatean, Argazki Rallyan ateratako ar-

gazkien erakusketa izanen da egun osoan Herriko Etxeko ganbaran. Gainera, erakusketa bisitatzen dutenek, euren ustez argazki politenak direnak hautatzeko aukera izanen dute. Goizean irratia saioa izanen da. Arratsaldean, Ipuin kontalari bat ariko da eta gero, 7.30etan, argazki rallyaren sariak banatuko dira. Arratsean herri afaria izanen da.

Igandean, azkenik, dantzaldia izanen da arratsaldeko 6etatik aitzinera Herriko Etxeko arkupetan, Imuntzo eta Belokiren eskutik. Gogoratu behar da bikote honek 25 urte bete dituela elkarrekin eta, honenbertez, saio berezia espero da.

## Kanposantuko lana Zubialdeko Isidrok egingen du

Kanposantua garbitu eta lurperatze zerbitzua Zubialdeko Isidro Bazterrikak egingen du, udal batzarrak onartu duenez. Garbitzeagatik hilabetean 16.000 pezeta jasoko du eta lurperatzea zuzenean familiari kobratuko dio.

## Ibintza kultur taldearentzat lokala

Medikuaren etxean lokal ttiki bat utziko dio Udalak Ibintza kultur taldeari, bertan bilerak egin eta paperak gordetzeko erabil dezan. Urte baterako utzi dio gela, baina epe hori luzatzen ahal da, udalbatzak erabaki duenez.

## Urte akabailako besta Bordatxon egingen dute jubilatuek abenduaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 15ean ospatuko da Doneztebeko Bordatxo dantza-lekuan Arkupeak erretiratuen elkarteak, Nafarroako Kutzaren laguntzaz prestatuko urte akabailako besta. Egun honetan, hil ondoko omenaldia eskainiko zaio Ramon Elosegiri, Baztan, Belate eta Barrankan barna igarotzen den Santiago Bidearen bultzatzaile eta gidari izandakoari.

Autobusak Doneztebera heldu ondotik, 11.30etan Meza Nagusia emanen da Doneztebeko elizan, hildako bazkideen oroimenez. Txomin Garmendia eta Bittor Elizagoien bertsolariaren saioaren ondotik, aurten egindako ekitaldiak aztertu eta heldu den urterako prestatu diren ekintzak aurkezteko solasaldia eskainiko da. Ondoren, agintarien solasaldiaren txanda izanen da. 1.30etan bazkaria izanen da Bordatxon, Moderno jatetxeak emana. Bazkalondoan, 4.30etatik 7.30etara dantzaldia izanen da eta autobusak arratseko 8etan bueltatuko dira etxera.

Izena emateko epea abenduaren 4an akituko da eta antolatzaileek adierazi dutenez, epe horretatik kanpo ez da inolere onartuko. 3.500 pezeta ordaindu behar dira eta prezio horretan, Eguberrietako zarearen zozketarako zenbaki bat sartua dago.





# DANTXARINEA:

## Bulkada berria merkataritza eta turismoari

**D**antxarinean, mugaz bi aldetako jendea bildu da asfaltiko urteetan. Azken aldian, turismoaren eta merkataritzaren aldetik Dantxarineak beheiti egin zuela aipatzen zen. Baina moldaketa batzurekin, eta benta berriak eraikiz, gasolinaren prezioan dagoen diferentzia aprobetxatuz, bidenabar, aldaketa handia somatu da Dantxarinean uda honetan.

Peio Martikorekin solasean jarrita, uda hagitz emankorra izan dela aipa-

tu digu: «*Gainera, ez dira turistak bakarrik etorri, inguruko herrietako jendea ere aunitz agertu baita. Bertze bezero klase garrantzitsu bat, adineko jendea, maiz azaldu da muga alde honetara*».

### **Merkataritza zentrua indartu**

Peiok aipatu digu «*Urdazubiko Udalak merkataritza indartzeko duen interesa*». Gisa honetan, eta aktibidade berrien laguntzarekin, Dantxarinea indarberritu da turismo eta industriaren ikuspegitik. Gainera, herri hauetan aktibidade berriak abian jar-



Dantxarineako merkataritza zentruaren indartzeak bizi berria eman dio uda honetan Urdazubiko turismo eta komertzioari.

tzeko erreztasun handia dago. Izan ere, jende aunitz bertze lekutara lanera joan arren, oraindik bertze aunitz daude lanerako prest mugaren bi aldeetan.

### **Tratu goxoa bisitariari**

Bisitariarendako arras polita eta ikusgarria izaten ahal da benta eta zerbitzu berriak jartzea, baina garrantzitsuena, instalazio horien barnean lan egiten duen

jendea da. Jendeak erosotasuna eta prezio onak estimatzen ditu, baina Peio Martikoren ustez, «*hori bezain garrantzitsua da zerbitzua eskaintzerakoan ematen zaion tratu goxoa eta maitasuna*». Edozein gisara, alde horretatik ez du sekulan arazorik izan Martikok eta bere ondarerik nagusiena, «*asegurua- ren poliza eta berekin lanean ari den jendea*» dela erran izan du beti.

ONGI PASA BESTAKI

**KOLOKAN**

tlf 667717681

DEKORAZIO ESTUDIOA

titulaturiko diseinari eta paisajista teknikaria

PROIEKTU ETA ERREFORMAK ETXEBIZITZA ETA LOKAL KOMERTZIALETAN

**OPARIAK**

aitzari mexikarrak  
lanparak  
alfonbrakkoak  
koltxak  
edredoi nordikoak  
iturlandeta karrika,3  
31780 BERA

**AGERRA**



**arrandegia**

Arrainak eta mariskoak  
Gabonetako enkarguak  
hartzen dira

948 631 566  
948 631 124

Sara, 2 • BERA



**Ostargi Optika**

Eguzki eta kiroletako betaurrekoak

Barometroak

termometroak

Bidasoa, 8  
BERA  
948 630 753



JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • BERA  
Tfnoa: 948 630 083

OPAS DE OSA

Eltzagibela, 4 • DONEZTEBE  
© 626 894 601

**PRESTATU EGUBERRIAK OPARI BEREKIEKIN**

- Usai-onak
- Etxerako gauzak
- Ezkontzako oparixkoak
- Bitxiak



Abenduaren 24an  
**IDEKIA**

**TXALUPA, S.I.**

ARRANDEGIA

Marisko eta arrain enkarguak hartzen ditugu gabonetarako

Kanttonberri, 3  
BERA  
627 44 30 12

**JAURENA**

**ELEKTROGAILUAK**

- Sukalde mobleak
- Elektrizidadaea
- Antenak

Ricardo Baroja, 12 • BERA  
© 948 63 12 17



**KATEA-BIKE**

**BIZIKLETEN**  
salmenta eta konponketa

Kanttonberri, 1  
BERA  
948 631218





txandalak jertseak sudaderak

**ZELA KIPOLAK**

Altzate, 6  
BERA  
948 630 598

**Guria**  
DROGERIA  
LURRINDENDA

**Opariak**  
Bufandak, pash-  
minak, xalak,  
painuluak,  
fularrak.

**Bisuteria,  
lurrinak,  
poltsak,  
opariak**

ROBERTO VERINO

**Biur**

ZERBITZU INFORMATIKOAK

- ▶ Jokuak
- ▶ Sakeleko telefonoak eta osagarriak
- ▶ Ordenagailuetan ofertak
- ▶ Ordenagailuendako hornidurak

Kanttonberri, 4 31780 BERA  
Tfnoa.: 948 631083  
Fax: 948 630673  
E-Posta: biur@jef.es

**Kanietuk**  
LENCERIA

*Abenduaren 3an  
Doneztebeko  
Moda Desfilean  
ikusiko dituzu  
gure azken  
nobedadeak*

Parrokia, 11 • **DONEZTEBE**  
Tfnoa.: 948 450112

Altzari  
rustiko eta  
kolonialak

Oihalak

Bidasoa, 4 • BERA • 948 630154

**Edurne**

Altzate 24 • Tfnoa: 948 63 06 06 • BERA

**Guztia etxeko gazteentzat  
0-16 urteak**

**GRACIAS  
ENTRO  
IEN**

Opariak  
Zilarra  
Bazarra  
Denefatik

Kanttonberri, 3 • BERA • Tel. 948 630132

Albistur 51  
31770 LESAKA  
948 637558

**KAXULA**

*Luhaldeto tresnak - Opariak - Pinturak*

Arropak  
Mertzeria  
Lentzeria

**ARTURO**  
ARROPADENDA

Altzate, 20 • BERA  
© 948 630136

**Zapatadenda.  
Kalotxa.  
Osagarriak.  
Konponketak.  
Bera. (leja 42)**

948 631516



**Nafarroako produktu bereziak**  
**Artisauen produktuak**  
**Eguberrietako lote eta saskiak**

Altzate, 14 • BERA • 948 63 11 51

**Martzutzak**  
**Arropadenda**  
**Oparidenda**

Eztegara, 12  
 BERA  
 ☎ 948 631425

IDEKIA:  
 • LARUNBAT ARRATSALDETAN  
 • ABENDUAREN 24AN ERE



expert 

**BORTZIRIAK, S.L.**

**KONPONKETA ETA SALMENTA**

- TB, BIDEO, HI-FI
- ELEKTROGAILUAK, haundiak eta txikiak
- TELEFONOAK, sakelekoak eta etxeakoak
- ANTENAK
- SUKALDEKO MOBLEAK

Bidasoa, 45 • BERA • Tfnoa: 948 631091



★ AEG ★ AIWA ★ ASPES ★ BALAY ★ BRAUN ★ BOSCH ★ CANON ★ CATA ★ CORBERO ★

# Marixus

## elektrogailuak

Eneterreaga anai-arrebak

Zarandia, 3 • **Lesaka** • 948 637 070



**ORAIN** **KATEAREN**  
**BARRENEAN**  
**TIEN 21**  
 elektrogailuetan espezializatuak

**ELEKTROGAILUEN SALMENTA ETA**  
**BERTAKO ZERBITZU TEKNIKOA**

✦

**ANTENAK ETA**  
**INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**

**GABONETAN SEKULAKO ESKAINTZAK**

★ KENWOOD ★ LG ELECTRONICS ★ MEPAMSA ★ MIELE ★ MOULINEX ★ PHILIPS ★

★ SAMSON ★ SHARP ★ SOLAC ★ SONY ★ SUPERSER ★ ZANUSSI ★ S&G ★


**BIDASOA-BERROARAN**

# Zumaleku ingurua oihan berritzeko 13 milioi pezeta

15 Hektareatan 25.000 zuhaitz landatuko dira, gehienbat pinua

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak Bidasoa-Berroarango Junta barnean dagoen Zumaleku inguruan oihanberritze proiektua onartu du. Lanen aurrekontua 12,94 milioi pezetakoa da eta Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. elkarte publikoak egiten ditu.

Lanak 15,25 Hektareatan eginen dira eta lehen helburua, Zumaleku inguru horretako oihan naturala berreskuratzea izanen da. Horretarako, kontserbazioan eta babesean oinarritu da proiektua, baina produkzioa ere alde batera utzi gabe. Espezie-rik egokienak landatuko dira eta zuhaitzien garapena ahalik eta egokiena izan dadin baldintza egokienak jarriko dira, kalitatezko egurren produkzioa handitzen den bitartean. Landatu behar den inguru osoa itxiko da, azienarik ez sartzeko eta landatutako zuhaitzen garapena segurtatzeko.

Guzira 24.739 zuhaitz sartuko dira: 11.277 larizio pinu, 5.955 haritz, 2.893 haritz zuri, 818 lizar, 818 platanu, 720 ezki, 720 urki eta 720 mendiko zumar. Orain haritz, gaztain, pago eta urki zuhaitz bakan batzuk eta sasua bertzerik ez dago inguru horretan.



Gehienbat pinuak landatuko dira Zumaleku inguruan.  
Artibokoa

**GOIZUETA**

# Asfaltos Campezo enpresak eginen duen zeharbidearen lanak laster hasiko dira

Ia bi urteko atzerapenarekin hasiko diren obrak bukatzeko hiru hilabete izanen ditu

**ESTEBAN AROTZENA**

Madalenatik Zibola bitarteko zeharbidea edo trabesiaren lana Asfaltos Campezo enpresarentzat izanen da, azaroaren 24ean udalbatzak ahobatez hartutako akordioaren arabera. Bi kartazal zeuden kontratazio-mahaikoen eskuetan hilaren 15ean elkartu zirenean, aipatutakoa eta Azpiroz-Saralegirena. Azkeneko honen eskaintza ekonomikoa Campezoarena baino 61.000 pezeta merkeagoa zen, baina lanak bukatzeko epea hiru hilabete luzeagoa, hau da, sei hilabetekoa. Enpresa gipuzkoarrak,

beraz, hiru hilabetean zeharbidea eginen zutenaren konpromezun hartzen zuen. Horixe izan zuen kontuan korporazioak lan hau berari ematerakoan. Aurrekontua, 79.989.485 pezetakoa da.

Atzera begirada bat emanaz, esan dezagun urte pare bat igaro direla bi administrazioak, Udala eta Nafarroako Gobernualegia, zeharbidea egiteko ados jarri zirenetik. Lehenengo proiektora ez zen eskaintzarik aurkeztu, ezta %10ean igo zenean ere. Azkeneko alean aurreratu eta oraingoan zehaztu dugun bezala, bigarren honek estimazio

handiagoa izan du zorianez.

## Begiraleak behar dira

Udal Euskara Zerbitzuak aisialdi tailerrak martxan jartzeko asmoa du aurtengo Eguberrietako oporretan ere, eta horretarako haurretaz arduratuko diren hiru begirale behar omen ditu. Bi astetan banatutako hemezortzi orduko programazioa aurkeztu beharko dute Udaletxean interesatuek azaroaren 29tik abenduaren 14a bitarteko epean. Herriko Etxean bertan edo 948 610636 telefono zenbakian jaso liteke informazio gehiago.



## Bertso-trama abenduaren 16an

Bertso-trama izanen da Goizuetan abenduaren 16an, larunbata, ilunabarreko 8etan. Xabier Legarreta (argazkian) eta Unai Agirre ariko dira Guraso Elkartean lokalean. Gai-jartzailerak Joxe Manuel Oiarzabalek beteko du. *Artzokoa*

**ARESO**

# Etxeak egiten hasiak dira Udalak jarritako lekuan

600 metroko partzelak saltzen ari dira

**JUANA MARI SAIZAR**

Arau subsidiarioak egin zirenean etxebizitzak egiteko tokia zehaztu zuten eta UA-1 deitu zioten. Hemen, lehenengo etxebizitzak egiten hasiak dira, baina zonalde hori urbani-

zatzeko, beste partzela guztiak saldu behar omen dira, Udalak esaten duenaren arabera. Partzelak 600 metro koadrokoak dira eta %6an eraikitzen ahal da. Urbanizatzeko kostua metroko 4.000 pezetakoa da.



## San Blas korala izan zen elizan azaroaren 12an

Azaroaren 12an herriko elizan Udazkeneko Biraren barnean San Blas korala entzuteko aukera izan genuen. Emanaldi polita eskaini zuten eta berriek gustora kantatu zuten elizak duen akustika izugarri ona omen da eta,

Herria itxuraz aldatzen ari da. Azken urte haue-

tan etxe mordoxka kanpotik txukundu egin di-

ra eta beste batzuk osotara berritzen ari dira.

# Eguberrietan haurrentzako aisialdi tailerrak antolatuko dira

Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzuen eskutik

JOSEBA AZPIROZ

Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzuak haurrentzat aisialdi tailerrak antolatzen ditu Eguberrietarako. Lan horretarako hiru begirale behar dira eta hauek bereizteko, izena eman eta bi asterako programazioa aurkeztu behar da (hemezortzi ordu guztira). Begirale izateko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da. Izena emateko epea abenduaren 14a artekoa da, eta udaletxean edo euskara zerbitzuan eman daiteke. Informazio gehiago nahi duenak euskara zerbitzuko 948 61 06 36 telefonora deitu dezake.

## Gaztain eta talo jatea Torrean

Abenduaren 2an, gaztain eta talo afaria egiten da, gaueko 9:30etan, Torrean. Ondoren trikitilariak eta txiste kontalariak izanen dira. 2.500 pezeta ordaindu beharko da eta txartelak hartzeko azken eguna abenduaren 1a da.



Hiru begirale behar dira haurrentzako aisialdi tailerrak antolatzeko Eguberrietan. Hemezortzi orduko programa aurkeztu behar dute.

## Mendibil taldearen ekitaldiak

Mendibil mendi taldeak bi ekitaldi antolatuko ditu abenduan, Hamabostean, ilunabar aldean, zinemaren 2.000. urteko irteeretan ateratako diapositibak ikusi ahal izanen dira eta 17an berriz, Hiru Erregeen Mahaira (2.438) irteera izanen da.

Izena emateko zerrendak jarriko dituzte baina kotxe partikularretan joanen dira. Ater-

pean tokia gordetzeko garai eskatu behar denez, erne ibili!

## Antzerkia kultur taldearen eskutik

Abenduaren 16an, arratsaldeko 8etan, zinemaren Txalo produktzioak taldearen «Bere emaztea kapela batekin nahasi zuen gizona» antzezlanaren ikusi ahal izanen dugu, Leitzako Kultur Taldeak, Udalen dirulaguntzarekin antolatuta.

## Zine programazioa

Abenduaren 1 eta 3an, «La virgen de los sicarios». Abenduaren 8 eta 10ean, «El bola». Orain gainera, gasazko berogailu berriarekin, bero-bero egotea ziurtatua dago.

## Nortasun Agiria

Nortasun agiria egi- tea edo berritzea bi hilabetetik etortzen dira Iruñetik. Abenduaren 14ean, goizeko 9etatik aurrera etorriko dira.

## Bide Berdearen bigarren fasea egiteko finantziak negoziatzen ari da Kontsortzioa

Plazaola Turismo Kontsortzioko ordezkariak Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduko kontseilariarekin, Javier Marcoteguiarekin, bildu ziren azaroaren 22an. Plazaolako ordezkari bezala, Ina Soravilla lehendakaria eta Jose Mari Aierdi, Lekunberriko alkatea eta Partzuergoko bokala izan ziren. Bertze kontuen artean, Uitzitik Leitzara doan Plazaolako Bide Berdearen bigarren fasea finantzatzeko Partzuergoaren eta Espainiako Ingurumen Ministeritzaren arteko negoziazioei buruzko informazioa eman zen. Fase honetan, lehendabizikoan egin beharrekoa zen Bartoloren tunela mol-datuko da. Orduan, egoera txarrean zegoela eta, gerorako utzi zen eta ordezkari bidea egin zen. Negoziazio hauek dextente aurreratuak daude, Partzuergoko ordezkariak adierazitakoaren arabera.

ARMAIRUAK  
ATEAK  
LEIHOAK  
SOLAIRUAK  
MAHAIAK  
LOGELAK  
TALLAK

**Igor**  
ZURGINDEGIA

Igor Elizegi  
Tel-Fax: 948 514 345  
Mug.: 646 056 163  
GOIZUETA

**MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetes
- Asma
- Buruko mina
- Onen iserdia
- Lami azaleko alergia
- Zizareak
- Prototia, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Hipoia
- Bista alferdua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katsaratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bokortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldez 2-Tetara, Ordus eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

**LESKA**

# Literatur lan taldea sortu nahi dute Jo ala Jo eta Erratzuko kultur taldeek

Erratzuko eskulan tailerrean hamar emakume ari dira

XABI B.

«Jo ala Jo» eta Erratzuko Kultur elkarteek literatur lan talde bat sortzeko egitasmoa azaldu dute. Bi talde hauen burutapena, interesgarriak iruditzen zaizkien liburuen egileekin solasaldiak antolatzea da. Mintzaldi hauek bi hilabetero-edo izanen lirareteke. Beraz, urte baten buruan sei hitzordu eginen lituzke. Horretarako jendearen partehartzea nahitaezkoa da. Alde batek, liburua aukeratzeko eta gero solasaldien egunak finkatzeko. Honela, hitzaldiak antolatzen direnean publikoa ere segurtatu nahi da: «Kontua ez baita Bilbotik idazle bat ekaritzea gero lau katu biltzeko».

Egitasmo honetan parte hartzeko prest izanen gero, liburuen zerrenda adosteko, egutegia zehazteko eta kultur ekimen hau definitu eta abiarazteko bilgura antolatu dute. Larunbat honetan, abenduak 2, eginen da bil-



## 77 kiloko kalabaza atera da Oronozko Argiñenean

Ornozko Argiñenea etxean 77 kiloko kalabaza ateri da. Hirutan hogeita hamar urte dituen Fulgencio Oteiza Maisterrenak zaintzen du baratzea eta sekulan ez omen du honelako kalazarik ikusi: «bertze urteetan eta aurtent egin dira kalabaza kozkorak, 40-50 kilokoak, baina honelakorik inoiz ere ez». Gan den urtean Oronozko etxe berrietako obra inguruan atera zen kalabaza batetik hartu zuen hazia, ercin eta aurtent lau ondo eman dute. Honelako ale bat ateratzeko sekretuaz galdetzerakoan zera dio Fulgencio: «Aurtengo uda ona gan zen, euria noiznahi egiten zuen eta beroa. Ardi gorostz pixko bat izan da ongarri bakarra».

Argiñenea: Karmelo

gura, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

### Eskulan tailerra Erratzun

Eskulan tailerra martxan da Erratzun, Kultur Elkartearen, Herriaren eta Etxeleberteko Txo-

koak antolatuta. Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eta Baztango Udalak lagunduta, Astean bi egunet aritzen dira Erretorearen etxean hamar emakume. Tailerra akitzen de-

nea erakusketa eginen dute beraien lanekin, iaz bezala. Urtea ongi akitzeko Kultur Elkarte hainbertze ekitaldi prestatzen ari da. Abenduan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Erratzun izanen dira.

## flash

### Argindar kableak

txoriei sortzen diaketien kalteak moidatzeko lanak eginen dira Nafarroa osoan. Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketak eta Etxebizitza Departamentuak 112,58 milioi pezeta inbertituko ditu. Gure inguruan, Dantxarinea, Urdazubi, Zugarramurdi, Elizondo eta Beartzunen eginen dira lan horiek.

### Zigako

Urdinz, Soate, Iurritzi eta Arrazela inguruetan ardiegiak egiteko 128.860 pezeta materiala eman dio Balleko Udalak Zigako alkateari. Lana azalaz eginen da.

### Internet-en nabigatzen ikasteko

tailerra antolatu du Erratzuko kultur taldeak, posta elektronikoren eta weborrien gorabeherak ikasteko. Abenduaren akaber bitarte eginen den ikastaro horrek Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eta Baztango Udalen laguntza jasotzen du.

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, ☎ 948 580939  
ELIZONDO

### UDAZKENEKO ARROPAK

Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntuak, kamisetak, blusak, oihalak...

### ESKULANGINTZAKO MATERIALAK



**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA





## BAZTAN

# Paxaka txapelketako partidak Iruritan jokatu dira

Guzira hamabortz hirukotek eman dute izena

Astearte honetan Bertizko Partzuergoaren egoitzan aurkeztu du Laxoa Elkarteak II. Paxaka txapelketa. Gan den urtean zortzi hirukotek eman zuten izena eta aurten hamabortz izanen dira. Horieta batak gipuzkoarra izanen da, Zubietakoa. Iruritik lau talde aurkeztuko ditu, Doneztebe eta Oitzek hiruna eta Arraioz eta Elizondok bina.

Txapelketa abenduaren 9an hasiko da

## Erratzuko emakumeen pala txapelketan sei bikote ari dira

Erratzuko Kultur Elkartek, Erratzuko herriaren eta Etxeleberteko Txokoaren laguntzaz antolatutako pala txapelketan sei neska bikote ari dira: Estixu eta Maite, Mantoni eta Begonia, Ainhoa eta Mari Joxe, Gurutze eta Jasone, Roxa eta Edurne eta

eta partida guziaz Iruritan Aranabia pilotalekuan jokatu dira larunbat arratsaldetan. Zubietarrek, ordea, igande goizetan jokatu dituzte euren partidak. Hirukoteak bi multzotan banatu dira eta lau lehenbiziok jokatu dituzte final laurdenak. Finala, heldu den urteko otsailaren 24an jokatu da. Iaz, Etxeberria, Mariñelarena eta Arratza doneztebarrak suertatu ziren txapeldun.

Ana eta Lorentxi. Azaroaren 4an hasi ziren eta abenduaren 2a arte ari tuko dira sailkapenaren bila. Abenduaren akaberan jokatu da finala. Erratzuko frontoian larunbatero jokatu dituzte txapelketa honetako partidak, atsaldetik 5etatik aitzin.

## ZUGARRAMURDI

# Aurten esposatutako bortz bikoteetatik bakarra gelditu da herrian

MARGARI ETA KORO

Aitzineko TTIP-TTAPAN agertzen zen Zugarramurdin egin den azkeneko ezkontza. Ezkontza hori urteko bosgarrena izan da eta hori berri haundia da (urte aunitzetan ez baita bakar bat ere izan), baina bertze aldetik budo bere alde txarra: bortz bikote hoietatik bat bakarrik gelditzen dela herrian bizitzen, eta bertzeak, lana dela, etxebizitza dela... kanpora behar izan dute. Gure herri ttiki hauek husten ari zaizkigu!

## Mendi taldea hasia da hilabeteroko ateraldiak egiten

Uda pastu ondok Zugarramurdiko mendi taldeak bere lehenbiziko ibilaldia egin zuen azaroaren 19an (Zugarramurdi-Arleun-Lizamiaga). Hemendik aintzina eta denek jakinaren gain egoteko egitegi bat egin da. Ibilaldiak hilabeteroko hiru garren igandean izanen dira. Goizeko 8etan plazaatik aterako da eta ai-



Bartolo eta Florentxarena izan da azkeneko ezkontza eta hauek dira herrian bizitzen geldituko diren bakarrak.

Foto Zaldia

tzineko ortzegunerakoz Mariñan ostatuan izena eman beharko da. Presatu den egitaraua hau da: Abenduan, Alkurruantz-Makitenea; Urturrian, Lezetakoborda; Otsailean, Urruñia;

Martxoan, Baigorri; Apirilean, Bera; Maiatzean, Zugarramurdiko Itzulia; Ekainean, Biriñatu; Irailean, Ezpeleta; Urrian, Lesaka; Azaroan, Erratzu eta Abenduan; Errotak.

**ARGIBEL OPTIKA**

Orain Donezteben ere

☎ 948 581 391

Serapi B. - ELZDONO

☎ 948 450 345

Iturri 7 - DONEZTEBE

**Aukera zabala**

- ☛ Anteojoak
- ☛ Lentillak
- ☛ Audifonoak
- ☛ Errebisioak



**BAZTAN**

**ALTZARIAK**  
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tinoa: 45 23 74 - IRURITA

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

**abokatua**  
aseguru orokorrak

☎ 948 581468

948 580433 (etxekoa)  
Frantziarako etorb. 3  
Ameztialde 3B-ELBETE

# Euskal Herrian usoak sarez hartzen duten ihiztariak Saran bilduko dira larunbatean

Denetara bederatzi toki badira, horietarik zazpi Ipar Euskal Herrian

ANA MARI ETA FRED

Ohitura zahar bati jarraikiz, Euskal Herriko uso ihiztarien elgarretaratzea ospatuko da aurten ere. Denetan 9 sare toki badira: 7 Ipar Euskal Herrian, bat Biarnoko Lanne herrian (Xiberuako mugan) eta azkena Etxalarren. Urte guziz Euskal Herriko uso ihiztariak biltzen dira, herri desberdin batean aldizka, ordre alfabetikoa segituz. Gan den urtean 120 presuma Baxe Nafarroako Lekunberri bildu baziren, aurten Sarako aldi izanen da. Larunbat huntan, abenduaren 2an, elgarretaratuko dira. Goizean herriko usotegietan zer aldaketa izan diren ikusteko bisita egin eta, aperitifa han berean hartuko dute. Gero Omordia gelan bazkalduko dute, usotegietan kondaketa egingen dutelarik. Agian bertzeetan Saran baino gehiago atxeman dituzte, bertzenaz pentsatzekoa da zenbaketa uste baino fiteago egingo izanen dela!



Joan den urtean Lekunberriko usategiak bisitatu zituzten usozaleek.

## ABren biltzar nagusia

Abertzaleen Batasuneko 150 kideetik gora parte hartu zuten azaroaren 18an Omordian, AB alderdiaren biltzar nagusia. Goizean proiektu politikoaz ukan zuten eztabaida eta arratsaldean hauteskundeak eta Ipar Euskal Herriak behar dituen instituzioak izan zituzten mintzagai.

Alderdiak zuzendaritza berria ere hautatu zuen, 13 idazkari izendatuz. Berritasunen ar-

tean, gazte jendearen sarrera azpimarra liteke. Bilana egin ondoren, geroari buruz aritu ziren, ABk heldu den urteko martxoan iraganen diren kantonamendu eta herriko bozetan finkatu baitu ikasturte berriaren helburu nagusia. «Ahal bezainbat tokitan presentatuko gara, eta egun boterean diren iraganeko jaunitxo imobilitisten aitzinean, Ipar Euskal Herriaren alternatiba eta etorkizuna abertzaletasuna» dela aldarrikatu dute.

## Dantza eta kantu ikastaroa

Ihaueren ahal bezain ongi prestatzeko, Sarako Gaztetxeak dantza eta kantu ikastaroak antolatuko ditu las-ter. Lehen hitzordua kantarekin ukanen dugu abenduaren lehenean, arrateko 9etan, eta hor ohiko euskal kantuen ikasteko parada ukanen dute nahi duten guziek. Bigarren hitzordua abenduaren 2ko finkatua da arratsaldeko 5etatik goiti, euskal dantzen ikasteko. Ikas-

taldi horretan mutxikoa-k, Lantzeko ihauteriak eta Sorgin dantza erakutsiko dituzte. Beraz, denak plazarat!

## Zirimolan hamabostaldia

Zirimolan taldeak antolatutako hamabostaldia kulturala azilaren 21ean hasi zen. Gure herri-ri ondoko ekitaldia abenduaren 2an gauzatu da Lastiri jatetxean bertu kantu afariarekin.

Herriko Etxeko mahainaren inguruan Peio Iralur, Marta Agirrezabala, Jane Kreckelbergh, Maider Jauregi-berri eta Esteban Olai-zola ziren eta horien arteko lotura egiteko Joset Oxandabaratz azkain-darra. 30 pertsona bildu diren partaideen iritziak aditzera, baita norberaren lekukotasuna ematera. Lekukotasunak aintzak izan ziren, aipatzekoa Peio Iralur-ena: «Ez dut hautatu nere ogibidea, nere amatzik tikitatik erraten zautan 'hi hiz etxeko premia, hi hiz etxaldea hartuko duena».

**SAIOA**  
**ILEAPAINDEGI**  
**MISTOA**  
**IBARDINen**  
Benta Biok-en,  
Benta Mirentxuren  
ondoan  
© 0034948630424

**ERROTAZAR**  
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA  
**ZELAIA Harategia**  
Agerra Auzoan

**MENDI**  
**OSTATUA**  
Santiago 25 • © 948 580313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
**Jatetxea**  
AMAIUR • © 948453060

**HERRIKO**  
**ETXKO**  
**EDANTEGIA**  
MAIAN ETA VERONIQUE  
64310 SARA • TEL. 05 59 54 25 18

**JATETXEA**  
© 948 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO  
**Galarza**

**EZKONTZAK**

Juan Cruz Lakosta Huarte eta Eva Maria Danboriena Altxuarte, Ziga eta Berroetakoa, urriaren 28an.  
 Jose Luis Altxugarai Galarregi eta Miren Karmele Zabaltza Benito, Elizondokoak, azaroaren 4an.  
 Juan Rafael Ordoki Legasa eta Maria Lourdes Matxikote Elgorriaga, Lesaka eta Berakoa, azaroaren 11n.  
 Iñaki Irisarri Malkorra eta Maria Jesus Artzuaga Mariezkurrena, Berrobi eta Urrozkoa, azaroaren 11n.  
 Iñaki Sanchez Lafuente eta Ines Gereka Zelaia, Zubietakoak, azaroaren 21ean.

**JAIOTZAK**

Mikel Salaberria Zabala, Goizuetakoa, azaroaren 4an.  
 Nahia Escudero Orbegozo, Leitzakoa, azaroaren 9an.  
 Beñat Santamaria Ibarra, Elizondokoa, azaroaren 6an.  
 Yonatan San Martin Monsalvo, Donztebekoa, azaroaren 12an.  
 Yohana Iribarren, Sarakoa, azaroaren 3an.

**HERIOTZAK**

Jesus Arregi Altxualde, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 9an, 62 urte.  
 Ramona Santxotena Arburua, Erratzukoa, azaroaren 10ean, 89 urte.  
 Cristina Yaben Juanikotena, Arizkungoa, azaroaren 11n, 69 urte.  
 Maria Francisca Iturriria Bergara, Erratzukoa, azaroaren 12an, 81 urte.  
 Florencia Alkasena Barrenetxe, Arizkungoa, azaroaren 12an, 92 urte.  
 Maria Labaien Escudero, Elizondoa, azaroaren 10ean, 91 urte.  
 Nicolas Maiora Etxeberria, Arraiozkua, azaroaren 20an, 82 urte.  
 Jean Baptiste Larralde, Sarakoa, azaroaren 7an, 86 urte.  
 Teofila Nuñez Benavente, Etxalarren, azaroaren 21ean, 95 urte.  
 Jose Mari Grajirena Urroz, Urrozkoa, azaroaren 2an, 56 urte.



**IBONentzat**

Sehaskatikan poza ta kulun-kuluna zure irrifarra ta zure maitasuna pasa erazi diguzun uneen jarduna ez zaitugu ahaztuko txikitxo kuttuna.

Atta, ama, Alaitz eta Alnhoa.  
 Bera, 2000ko Azaroa



**Manuel ARANIBAR DIAZ**

2000ko urriaren 12an hila

**ESKER ONA**

Emate, seme-alaba, anai-arreba iloba-biloba eta familia osoak, gure esker ona adierazi nahi genuke egun hauetan hartu dugun laguntza eta elkartasun guztiengatik.

Bera, 2000ko urria



**BAZTAN FUNERARIA**

**ORAIN TANATORIO ZERBITZUA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
 EHOZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK  
 Menditurri, 1 • ELIZONDO  
 ☎ 948 580373 • 608 776176

**ESKELAK  
 URTEMUGAK  
 ESKERTZAK**

ttipi-ttapan agertzea nahi baduzu, deitu:

**948 63 11 88**

# Mindegiak eutsi egin zion Donezteben Nafarroako aizkolarien txapelari

- Nazabalekin borroka estua izan zuen, baina azkenean ongi nagusitu zen zubietarra
- Senosiain hirugarren izan zen, Larretxea laugarren eta Etxeberria bosgarren

Arron AROTZENA

Gozatu ederra hartu zuten feria egunean Doneztebeko pilotalekura hurbildu ziren herri kirol eta aizkora zaileek. Nafarroako aizkolaria txapelketa nagusiaren finala zen jokoa eta Mikel Mindegia zubietarrekin batera, Etxarri-Aranazko Floren Nazabal, Arantzako Donato Larretxea, Sunbillako Felix Etxeberria eta Olagueko Antonio Senosiain aritu ziren. Mindegiak joan den urtean lortutako txapelari eutsi nahi zion, baina ez zuen lan errea. Iaz, Donato Larretxea ez zen plazaratu eta, gainera, Floren Nazabalek inoiz baino sasoi hobea erakutsia zuen Euskal Herriko txapelketan. Hori dela eta, apostulariek Nazabalen alde egin zuten haseran.

Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituzten eta lehenbiziko kanaerdikoan ikusi zen lehia gogorra espero zitekeela. Donato Larretxea izan zen azkarrena, baina berehala eta kasik aldi berean, moztu zuten beraien enborra Mindegia eta Nazabalek. Bigarren enborrean suerte txarra izan zuen Donatok, eta bere aizkorarik onena hautsi egin zuen. Honela, Floren Nazabal izan zen az-



Mikel Mindegia zaharrak aurre hartu zien Floren Nazabal eta Antonio Senosiain gazteei Nafarroako txapelketaren finalean. Arg.: Aitor Arotzena

karrera bigarren kanaerdikoan. Hirugarren enborrerako aitzina hartu zuen Mindegia eta hortik aitzinera, lehia gogorra izan zuen Nazabalekin, baina beti aurretik izan zen zubietarra. Larretxea, berriz, pixkanaka betetzen joan zen. Azken asteetan izan duen gerriko minak ere ez zion sobera lagundu. Antonio Senosiainek lan polita egin zuen eta azkenean, Do-

natorekin borroka peletua izan ondotik, hirugarren postua lortu zuen Olaguekoak. Felix Etxeberria sunbildarra saiatu zen, baina oinbiko enborretan ezpala itxi egin zitzaion eta nabiko lan izan zuen enbor horiek moztzen. Honela, Mindegia abantaila tiki batekin ailegatu zen azken bi enborretara eta hor ez zuen hutsik egin. Bere erritmoari eutsiz eta arerioak zeharka be-

giratuz, 25 minutu eta 12 segundutan akitu zuen bere lana. Nazabalek 42 segundu gehiago behar izan zituen. Hirugarren posturako lehia estuan Antonio Senosiainek lau segunduko atera zizkion Donato Larretxeari. Felix Etxeberriak itxi zuen sailkapena. Ordu erdi baino gehiago behar izan zuen bere lana burutzeko, 30 minutu eta 17 segundu.

■ Mikel MINDEGIA

«Hor eusteko sufritu egin behar da»

■ Nazabal zen faborito, baina azkenean zu nagusi...

↓ Bai, Nazabalek ere lan ona egin du, baina nik ere lan ona ateratu dut. Euskal Herriko txapelketan baino gustorago aritu naiz, gerrietatik eta kondizio hobean etorri naiz eta lan ona ateratu dut.

■ Maiz aipatu duzu txapelketak uzteko asmoa, baina oraindik aurrean ibiltzeko moduan zaude...

↓ Bai, oraindik taila ona dudala ikusten da, baina gogorra da horrela mantentzea, asko sufritu behar da. Adinean aurrera noaie eta gazte hauei eusteko sufritzen jakin egin behar da.

■ Gazteek ez ote dute gehiago sufritzen zaharrari eusten?

↓ Beraiek ere nabiko lanekin dabilzala iruditzen zait, bai.



	54	54	60	60	72	72	60	60	54	54
1. MINDEGIA	1'11"	2'43"	5'03"	7'21"	11'19"	15'50"	18'17"	20'53"	22'47"	25'12"90
2. NAZABAL	1'04"	2'32"	5'13"	7'30"	11'46"	16'05"	18'41"	21'37"	23'53"	25'54"52
3. SENOSIAIN	1'11"	2'43"	5'24"	8'01"	12'37"	17'49"	21'04"	24'23"	26'36"	28'47"33
4. LARRETXEIA	59"	2'49"	5'10"	7'36"	12'02"	16'15"	21'06"	24'36"	27'04"	28'51"94
5. ETXEBERRIA	1'11"	2'59"	6'25"	8'38"	14'31"	19'39"	22'24"	25'29"	28'07"	30'17"92

# Urtxintxa zikloturista taldeak bere lehen denboraldia akautu du

- Eskualdeko 53 txirrindulazale biltzen ditu
- Dena den, negu partean mendi bizikleta ateraldiak egingen dituzte

A.A.

Eskualdeko zikloturistak biltzen dituen Urtxintxa taldeak akautzat eman du denboraldia azaroaren 18an egindako afari batekin. Bertan, ateraldi gehienetan parte hartu duten taldekideak saritzeaz gain, omenaldi xume bat eskaini zitzaion Jon Bru eta Patxi Vila Berako txirrindulari afizionatuei, aurten egindako denboraldi bikaina eskertuz.

Urtxintxa zikloturista taldeak 23 lizentzia ditu, baina aurten egin dituen ateraldi ezberdinetan 53 lagun izan dira, gehienak Bortzirietakoak. Errepideko denboraldia akautu baldin badute ere, orain mendi bizikletarekin hasiko direla azpimarratu dute. Igandero, goizeko 9etan izaten dute hitzordua Berako Txantre ostatuaren aitzinean. Beraz, konpetizio munduan sartu gabe bizikletaren gainean une politak bizi nahi duzuen guziek hortxe du zita, taldea nahi duen edonorentzat irekia baitago.

## MAILA EZBERDINETAKO TXIRRINDULARI ZALEAK BILTZEN DIRA IGANDERO

Jose Ramon Martin eta Jose Manuel Arrieta, Urtxintxa zikloturista peñako ordezkariak adierazi digutenez, edozein mailako txirrindulariek parte hartzen ahal dute beraien ateraldietan: «18 urteik 60 urte bitarteko kideak ditugu eta bakoitza bere mar-



Urtxintxako zikloturista taldeko kide batzuk, Berako Miguel Indurain proba hasi baino lehen ateratako argazkian.

Argazkia: Foto Golko

txan joaten da. Helburu bakarra txirrindulari koadrila bat bildu eta igande goiza lagun arteko giroan pasatzea da, horrek jendea motibatzen du. Batzuk nahitaez lehenbizikoak ailegatu nahi dute eta beraz batzuk lasai ederretan paseatu».

Urtxintxa taldeak Katea-Bike Berako bizikleta dendaren laguntza izan du. Taldekide batzuk Tourmaletara, Pirinioetara, Hautacamera edo Covadongako lakuetara joan dira aurten. Quebrantahuesos, Miguel Indurain edo Donosti-Donosti bezalako probetan parte hartzeaz gain, Mikel Mujika beratarrak Santiago Bidea egin du bizikleta gainean. Aitor Martiarena triatloietan parte hartzeko prestatzen ari da eta Lanzaroteko Ironman proba egiteko asmoa du.

Jose Ramon MARTIN eta Jose Manuel ARRIETA Urtxintxa

## «Taldea koxkorra ikusiz gero frenatu bederen egiten dute ibilgailuek»

**Zein arazo nagusi topatzen dituzue errepidera ateratzean?**

Inguru honetan errepide estuak ditugu eta trafikoa handia da. Horrek alboko marraren gainean ibiltzera behartzen zaitu, baina orain koxka horiek jarri dituzte eta hori hagitz txarra da guretzat. Nahitaez barerago joan behar duzu eta orduan sortzen dira arazoak. Bakarrik edo binaka joanez gero, auzitan ez zaituzte errespetatzen eta ondo-ondotik pasatzen dira. Talde koxkorra ikusiz gero frenatu egiten dute bederen.

**Aurtengo balantzea ona izan da zuentzat. Heldu den urterako zein asmo dituzue?**

Taldeko kideek hainbat ateraldi egin dituzte beraien gisara, baina heldu den urterako taldearen igandero ateraldia indartu nahi dugu, ahalik eta ibilaldi politetara.

nak eskainiz. Ez dugu txirrindularitzan ari diren klubek kontra jo nahi, alderantziz, nahi duten guziarendako eskura gaituzte. Bertalde, udan, Pedalaren Eguna bezalako zerbiat antolatu nahi dugu.



**BOFE**  
Berako

## ◆ Gure Txokoa nagusi derbian

Azaroaren 12an Bortzirietako futbol derbi nagusia jokatu zen Berako Matzada zelaian. Lau urte terdi pasatu ziren azkenekotik eta ikusmin berezia sortu zuen partidua. 800 ikusle bildu ziren, Berako zelaia inoiz izan duen sarretarik onena. Gainera, bi herrietako txarangak bildu ziren eta giro ederra piztu zen. Partidua, dena den, txarra izan zen eta azkenean 2 eta 1 nagusitu zitzaion Gure Txokoa Beti Gazteri. Hamarkada honetan beratarrek irabazi duten lehen derbia izan da.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### FERIAK

#### LESAKA

► **Azaroaren 30ean** Informazio gehiago Lesakako berrietan.

### MINTZALDIAK

#### BERA

► **Azaroaren 29an eta abenduaren 13 eta 20an**

Marta Etxaide psikologoa arazo onkologikoa dituzten lagunentzat eda hauen senitartekoenentzat solastuko da. Berako kontsultan, arratsaldeko 6,30etan. Boritzirietako Lagunen Taldeak antolatzen du.

### ZIRIMOLAN

#### BERA, AZKAINE...

► **Azaroaren 30a**

Berako lamotenean, «Gay eta lesbianak» mintzaldia, arratsaldeko 8etan.

► **Abenduaren 1ean**

Zine arratsa Etxalarka Herriko Etxean. 500 pta.

► **Abenduaren 2an**

Saraka lastiry jaietxean bertso-kantu afaria, arratsede 9etan.

► **Abenduaren 3an**

Azkaineko kiraldegian, Hiru Puritu antzerki taldearen «Hotel du fronton» antzeziana.

### ERAKUSKETA

#### ELIZONDO

► **Abenduaren 14a arte** «Euskara eta kultura Nafarroan» erakusketa. Astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 6,30etatik 9etara.

► **Abenduaren 17a arte**

Auza aretoan, elizaren ondoan. Felix Urtizberearen margo erakusketa.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Moda ttipi-ttapa telebistan

Ale honetako erreportaiari ikasi izanen duzuen bezala, abenduaren 3an moda desfilea izanen da Doneztebeko Kiroldegian. Negu honetako tendentziak eta eskualdeko denden eskaintza erakusgai izanen dira bertako modeloen eskutik, eskualdeko modaren erakuslelhoia. Ttipi-ttapa telebistak ere moda desfile honen testigantza bilduko du, horretarako programa berexi bat egingen da abenduaren 4ean, ekitaldiak eman zituen hobereenak zuen etxetara eramateko.

## Eta nola ez, Bortzirietako Feriak

Bainan modari tartea egin baino lehen Bortzirietako Ferietako hitzorduarekin ez du hutsik egingen gure telebistak.

Joseba Olagarai eta Aitziber Almandozen eskutik, ferien bixitasun eta giro guzira bizitu ahal izanen duzue azaroaren 30ean bertan.



### BASERRIA



#### ◆ ZERRIKIA ◆

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.500 pta.
- **Zerrigizena** (95-100): 178 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 115-120 pta./kiloa, bizirik.



#### ◆ BEHIKIA ◆

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
- Extra ..... 555-570
- 1.koa ..... 545-555
- 2.koa ..... 495-505
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
- Extra ..... 600-610
- 1.koa ..... 575-595
- 2.koa ..... 525-545
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukook):
- Nabarrak:** urruak 25.000-29.000 eta idixkoak 31.000-36.000 Pta.
- Mestizoak:** urruak 42.000-48.000 eta idixkoak 49.000-59.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal.
- Behi gari ona: 410 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

### Liburuak



«Nafarroa, iragana eta geroa» Iñaki PETXARROAN TXALAPARTA

Azken urteotan Nafarroako Historia Politikari buruzko liburu saila idatzi da, orain arte hain ezaguna ez zien ikuspegi baletatik idatzi ere. Dena den, hau da ildo horretan bertan Nafarroako hizkuntzan idazten den lehendabizikoa. Gipuzkoar batek idatzi du gainera, Donostian portu baina Lasarten bizi den Iñaki Petxarrorenak, alegia, Euzkaldunon Egunkariako kazetaria da bera, eta Nafarroaren iragana,

oraina eta geroa aztertu ditu liburu honetan. Lehenik gertaera historikoak kontatuz, historialari desberdinen ikuspuntua eskaintz gero, eta azkenik, gaur egungo ordezkari politikoen iritziaz mahai gainean jarritz. Urteuren baten aitzakian idatzia da liburua. Izan ere, aurrean bete baitira 800 urte Gaztelako Erresumak Nafarroari Arabia, Gipuzkoa eta Bizkaiak kendu zitziola, iltas-porturik gabe utziz.

# Euroari buruzko galdemoduak

### Erabil daiteke eurotako faktura bat pezetetan deklarazioa egiteko?

Bai. Edozein pertsonak aurkezten ahal ditu euro edo pezetetan dauden fakturak, deklarazioa egiten duen moneta kontuan eduki gabe. Hau da, zdeklarazioa pezetetan aurkezten bada, eurotako fakturak pezetetara pasatuko dira aldaketa tipo finkoa eta borobiltzearen araua aplikatuz. **Euroarekin, zer gertatuko zaie inbertsioen epe-mugei?**

Inbertsio zaharrak. Aurrezki Kutxetako bonoak bezalakoak eta epe-muga 2001eko abenduaren 31 baino beranduago dutenak, 2002ko urtarrilaren 1aren ondotik ordainduak izanen dira eurotan. Aurrezki Kutxako ziurtagiri batek egun hori baino lehen baldin badu epe-muga, interesekin batera pezetetan ordaindua izanen da.

### Nola eragiten du euroak transferentzietan?

Komenigarria da transferentzia guztiak fakturak agertzen duen monetan egitea, edo



2002ko urtarrilaren 1ean izanen da Euroa moneta bakarra.

*Komenigarria da transferentzia guztiak fakturak agertzen duen monetan egitea, edo akordioa egiterakoan adostu den dirutan.*

akordioa egiterakoan adostu den dirutan.

### 2002tik aitzinera kontu korrante berriak irekitzea beharrezkoa izanen da?

Ez. Aldaketa epearen barruan, eta alde guzietan adostasunarekin, bankuek eurotara iraganen dituzte kontuak, aldaketa tipoa eta borobiltze arauak aplikatu ondotik. 2002ko urtarrilaren 1etik aitzinera aldaketa automatikoa da, beraz ez da beharrezkoa izanen kontu korrante berriak irekitzea. Aldaketa hau dohainik izanen da.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MODA DESFILEAK

### DONEZTEBE

► **Abenduaren 3an** Kulturkarik antolatua, eskualdeko denden eskaintzak erakusgai izanen dira arratsaldeko 6,30etatik aitzinera.

## KULTUR EGUNAK

### IGANTZI

► **Abenduaren 6tik 9ra** Informazio gehiago 13. orrialdean.

### ITUREN

► **Abenduaren 7tik 10era** Informazio gehiago 16. orrialdean.

## TXAPELKETAK

### DONEZTEBE

► **Abenduaren 16an** Euskal Kantu Txapelketaren finala egingen da Bordatxon, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera.

## ZINEA

### LEITZA

► **Abenduaren 1 eta 3an** "La virgen de los sicarios".  
► **Abenduaren 8 eta 10ean** Achera Mañasen "El Bola" filmea ikusgai egonen da.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tifora, deltu behar da

► **Azaroaren 27tik abenduaren 3ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.  
► **Abenduaren 4tik 10era** Etxalar, Ituren, Irurita eta Goizueta.  
► **Abenduaren 11tik 17ra** Igantzi, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

## DISKAK



«1978-1988»

ITOIZ

EKARLANEAN

Euskal pop-rock-zaleentzat berri pozgarria izan da arras disko honen karrikatzea. Hamar urteetan egindako lana zazpi diskotan bildu zuten bere garaian, emandako ehundaka kontzertuak ahanziz gabe, noski. Orain taldearen diskografia osoaluzuzko kaxa batean jarri du salgai Elkarlanean etxeak. 7 CDekin batera "Nobela Beltza" izeneko abesti ineditoa aurkitu ahal izanen da, 1985ean

Espaloian diskoan sartzeko asmoz grabatua bainan inoiz argitaratu ez zena. Euskal Herrian 80. hamarkada pop-arentzat garairik hobereana izan ez baldin bazen ere belaunaldi oso baten memorian bizirik dira oraindik litozen abestiak, eta gero etorriko ziren bertze taldeentzat abiapuntu eta eredu izan ziren. Ongi etorria izanen da disko hau, dudarik gabe.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Ebe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikulak, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berritu dira. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/geltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdutza / aurkitza
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎ 948 637 821 (eguerdian eta 20etatik aitzin).

**LEITZA.** Pabi Arrazola karrikan pisua salgai, kale-fakzioarekin. Sukaldea, bainua eta jangela montatua. Lanparak etxe guzian. ☎ 948 510 534.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 341  
☎ 948 978 636

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUA

Beran pisu bat konpartitze-ko pertsona bat behar du. ☎ 948 631 222 (Inma).

## ZERBITZUAK

### 207 GARRAIOAK

Garraioak eta banaketak egiten dira, enpresa zein partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477 277.

## LANA

### 301 ESKAINTZAK

Web orri eta multimediara-ko disenatzaile grafiko digitaletan behar da. ☎ 619 829 289 (Bitarte).

Mantenimendu, programa- zio eta erabiltzaileen laguntzarako informatikaria behar da. ☎ 619 829 289 (Bitarte).

Etxalarko jatebete batean zerbitzaria behar da aste-buruetan lan egiteko. ☎ 656 703 502.

## Kiloak soberan?

**Diru estra behar duzu?**

Lan egiteko, dezagun elkarrekin, egun osoan edo ordutua. Nazioarteko enpresa.

☎ 943 635 173 - 629 373 364

## LODITASUNA

EDAN ETA ARINDU!

Zure pisu konpartitua gustuko janak bujerta gabe.

☎ 948 13 11 36

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Nissan Patrol**  
**Top-Line salgai**

Turboa, ilantak eta defentsa.

☎ 670 25 22 02

Traktorea salgai, Same Explorer 70 apala. ☎ 943 490 619 (Xanti).

Land-Rover luzea behar dut. Egoeraren arabera negoziatuko da prezioa. Deitu eta hitzegingo dugu. Kausa on baterako da. Eskertuko zaizue. ☎ 948 610631.



**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

### U.C.13ko XEHETASUN AZTERLANA HASIERA BATEZ ONARTZEA

2000ko azaroaren 2an Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoren dagoen erabakia onetsi zuen:

- 1) ACELARIAK aurkeztutako U.C.13ko Xehetasun Azterlan hasiera batez onestea.
- 2) Aipatu Xehetasun Azterlan, iragarki Taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, guburuek, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietako batean alde zurrik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzea.
- 3) Xehetasun Azterlan hau Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garaio eta Espainiako Iparraldeko Ur-konfederaziora bidaltzea.
- 4) Interesatuari jakinaraztea notarioarengana eta Jabetza Erregistrora joan behar duela lurzatiari buruzko datuak eguneratzeko.
- 5) Akordio hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2000.11.09  
Alkatea,  
J. Goia Etxeberria



**ITUREN**ngo  
**UDALA**

### XUNBILLENKO BORDA ETA ITURENGO ENBALTSEAN OIHANBERRITZE ETA BERTZE OIHAN LANEN ADJUDIKAZIOA

Iturengo Udalak goian aipatutako lanen adjudikaziorako enkante publikoa deitu du, prentsan iragarritako prozedura negoziatuaren bitartez:

**Xedea:** Xunbileneko Borda eta Iturengo enbaltzea inguruetan oihanberritze eta bertze oihan lanen kontratazioa, D. Martin Mindegua Ochandorena, oihan injeneru teknikoaok propio idatzitako proiektuaren arabera.

**Aurrekontua:** Kontratuaren aurrekontua (BEZ barne) LAU MILIOI ZAZPIREHUN ETA HEMEZORTZI MILA ETA ZAZPI (4.718.007) pezetakoa da.

**Eskaintzen aurkezpena:** 2000. urteko abenduaren 11ko 12 orduak bitarte, Udai Idazkaritzan.

**Kartazalen irekitzea:** Abenduaren 11n, arratsaldeko Setan Herriko Etxean.

Klausula ekonomiko-administratiiboen plegua interesatuaren esku dago Herriko Etxeko Idazkaritzan.

Ituren, 2000.11.23  
Alkatea,  
Jose M<sup>a</sup> Gorosterrazu Etxalde

## KULTURKARI

### Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura toloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin prezioan hobetuta negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88



## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

#### MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra GSi, C-15 D, Ibiza D,

Super S, Terrano TD,

Patrol 6 zilindro.

SUZKURAK ETA VITAKAK ALKIBIAN

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Behi suizoa salgai, emari dagoena. ☎ 948 637 378.

Bederatzi ardiren subentzioa salgai. ☎ 948 637 468.

Behi-esne kuota salgai, 82.097 kilokoa. ☎ 948 635 182.

Chou-chou eta malamute zakurkume zoragarriak salgai. ☎ 639 257 805.

Oilagor ehiziko zakurkumeak salgai. Aita-ama ehizturi onak. ☎ 606 094 024.

Setter zakurkumeak salgai, lau hilabetekoak. Bi ar eta emea. ☎ 948 610 625.

Egurrezko sukalde kalefaktorea salgai. Arras egoera onean dago. ☎ 609 744 757.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Bigarren eskuko De Dietrich sukalde ekonomikoa salgai Beran. Egoera onean dago. ☎ 654 729 990.

Hewlett Packard ordenagailua salgai. 200 Mbyteko disko gogorra eta 12 Mbyteko RAM memoria. Ordenagailuarentzat moblea ere badu. ☎ 948 630 948 edo 948 630 095.

Fagor CBG-150 termo urberogailua salgai. ☎ 948 630 948 edo 948 630 095.

Gimnasia bankua, ohatila eta estufa japoniarra salgai. ☎ 626 088 309 (gauez).

Gasolia erretzeko kaldera salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 362.

Mini-disc erabiligabea salgai. ☎ 948 634 125 (Castillo, goizez).

Caritas: Butano estufak behar ditugu. Norbaitek baldin badu baten bat oparitzeko, eskertuko genuke. ☎ 948 630 086.

# 2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora





## URDAZUBIKO UDALA

### IKABURUAKO LEZEEN SARRERA ETA ZAINKETA ZERBITZURAKO LEHIAKETA

Urdazubiko Herriko Etxeko Udaltzatzen, 2000. urteko azaroaren 17an egindako batzarrean Ikaburuako Lezeen Zainketa eta Sarrera Zerbitzuaren Esleipena Lehiaketara ateratzea adostu zuen. Eskaintzak 2000ko abenduaren 26ko eguerdiko 12ak baino lehen aurkeztu behar dira Urdazubiko Udaleko Erregistroan.

Klausula ekonomiko-administratiboaren plegua, nahiz onartutako eredia interesatuen eskura dago Urdazubiko Herriko Etxean.

Urdazubin, 2000.11.24  
Urdazubiko alkatea,  
Andres Diharasarri

# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuko, bidali sobrea zure helbidearekin.

**OHARRA:**  
Argazki bakiltzarekin batera 35 Ptako 15 seilo igorri behar duzue. Galerakoan ez dira TTPI-TTAPA TITULAZIÓN eta aldizkarian argituko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



**Izaskun Leku-berria** gazteak 3 urte bete ditu azaroaren 30an. Zorionak amari, teta Ety, Xabi eta Gazteluko familiaren partetik.



**Ibai Etxeberria Burlada** araztarak 5 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak Piztoko, Oihara eta familiaren partetik.



**Xabli** azaroaren 24an 3 urte bete ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Iñaki Iruretagoiena Arregi** donostiarak 10 urte bete ditu azaroaren 9an. Zorionak osaben, Gorka eta Anaren partetik.



**Ana Sarratea Arregi** donostiarak 6 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak eta musu handi bat guraso Gorka eta teta Julen partetik.



**Aitor Danboriena Altzagaren** eskolarak 6 urte bete ditu azaroaren 19an. Auzitza urteak aita, ama eta Aitor arrebaren partetik.



**Gorane Agirre Hernandorena** berzarrak 20 urte bete ditu abenduaren 15ean. Zorionak eta musu handi bat Irugo familiaren partetik.



**Oihane Colenotxe Iparragirre** berzarrak 7 urte bete ditu azaroaren 26an. Zorionak aita eta amaren partetik.



**Model Unxion** berzarrak 4 urte bete ditu abenduaren 14an. Zorionak! Legutako familiaren partetik. Aupa Oihane!!



**Iñaki "Landaburu"** eskolarak azaroaren 26an urteak bete ditu. Zorionak Etxeko familia eta lagunaren partetik.



**Uxue Matxibena Mariez-kurrena** urraztarak 2 urte bete ditu azaroaren 19an. Zorionak Maider, Leysa, Uhai eta Toñen partetik.



**Uxue Matxibena Mariez-kurrena** urraztarak 2 urte bete ditu azaroaren 19an. Zorionak guraso eta atxolamenduen partetik.



**Martina Baleztena** saildutarak abenduaren 8an urteak bete ditu. Zorionak eta besarkada bat familiaren partetik.



**Mikel Castillo** berzarrak urteak bete ditu abenduaren 7an. Zorionak karamantel! Petal, ama eta atxolamenduen partetik.



**Neria San Miguel Gorosabel** egiarraztarak 5 urte bete ditu azaroaren 23an. Zorionak aita, ama eta Oskuren partetik.



**Beñat Txoperena Matxibekote** igarraztarak 9 urte bete ditu abenduaren 8an. Auzitza urteak Oihane, ama eta atxolamenduen partetik.



**Xabier Iturria** berzarrak urteak bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak gurasoen eta anaren partetik.



**Aitor Txoperena Euzki** igarraztarak urteak eginen ditu abenduaren 10ean. Zorionak zure aita eta amaren partetik.



**Iñaki Agirre Gortari** aridundarrak 9 urte bete ditu azaroaren 18an. Auzitza urteak aita, ama eta Josebiren partetik. Musu bat.



**Xabierto Arriola Perez** lesakarrak 6 urte bete ditu abenduaren 30an. Zorionak eta musu handi bat famili guztiaren partetik.



**Ana Dela Sarratea** etxandarrak 18 urte bete ditu abenduaren 11n. Zorionak eta animo kameroekin Lagunak.



**Iñigo Apeztexea Iparragirre** araztarak abenduaren 2an 14 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Joseba Agirre Otxeteko** inandarrak 2 urte bete ditu abenduaren 8an. Zorionak biking!



**Jon Ander Bengoetxea** leizarrak 7 urte bete ditu abenduaren 7an. Zorionak eta musu handi bat aita, ama eta Belen partetik.



**Juan Luis Urkiola** azaroaren 23an bitarteko urte bete ditu. Zorionak zure eskolazaren partetik. Ea zifitza gorbideraz gaituzen.



**Joane Rodriguez Etxepare** lesakarrak abenduaren 4an 3 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik. Auzitza urteak.



**Iñigo Sanz eta Maite Criado** berzarrak azaroaren 25ean ezkondu dira. Zorionak eta musu handi bat. Zuen lagunak.



**Aitor Altzagara Zabiri** lesakarrak 4 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak ber, aita eta anaren partetik.



**Joseba Mari-ezkurrena Apeztegia** berzarrak 2 urte bete ditu abenduaren 11n. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



**Jone Mitxelena Luarnagarai** apiluztarak 3 urte bete ditu abenduaren 10an. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



Zabierako **Rosa Mari eta Jose Mari** ezkondu ezaia, 25 urte eskondurik, beste 30uzte abenduaren 8an. Zorionak bere famili guztiaren partetik, eta beretzki bi alaben partetik.



Norbait zoriontzeko, bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTPI-TTAPAKO helbidera:  
**TTPI-TTAPA ALDIZKARIA**  
**HERRIKO ETXeko PLAZA, 1**  
**31780 BERA**

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Aupa ENEKO eta XABI.** Besarkada haundi haundi eta bero bana, gure Euskal Herritik! Animo gazteok eta eutsi gogor.

**Addio Tere:** zertan zara? Agian bixkor! Meu honen bidez, gure agurrik beroenak eta musuak milaka igortzen dauzkizugu. Ikusten, beti gogoan zaitugu Ttanta!!! Laster ikusiko dugu elkar. Ordu arte egon ongi, akarizan. Gogo eta bihotzez zurekin gaude.

**de. Musu. Saratik, Aranburu familia.**

**Egunon Terexa,** zure zai gaude eme. Zurekin gara beti, sekulan baino gehiago. Besarkada eta musuak. Kattin eta Mixel.

**Kaixo Erefiozuko anaiak,** eskuminak. Herrian 2 gailurrek huts egiten digute, ian laster itzultzen diren. Abok tinko, gure eguna helduko da. Beltzaran.

**Donamariako Enekeri:** zorionak azaroaren 24an urteak egin dituelako. Bere familiaren partetik.

**Donamariako M<sup>o</sup> Jesuseri:** zorionak azaroaren 23an urteak egin dituelako. Bere familiaren partetik.

# MUEBLES A METS

*Larunbat arratsaldetan irekia*

Sarrera BERAtik da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
NA-31789 LESAKA  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax 948 631 443

**1. urtemugako  
eskaintza**

**%40ko deskontuak  
koltxoi eta  
somieretan**

**SUKALDEKO MAHAI ETA AULKIAK**



**39.900 Pta.tik goiti**



**CLIP  
CLAP**

**39.900**

*Pta.tik goiti*



# MODA DESFILEA

**DONEZTEBE**

## Polikiroldegian

### PARTEHARTZAILEAK

**AGARA** kirolak (Bera)  
**AMAIA** Ileapaindegia (Arantza)  
**BELEN** Loreak (Doneztebe)  
**ESTIBALITZ** Makilajea (Elizondo)  
**IBARROLA** Haur Jantziak (Doneztebe)  
**IPINGI** Jantziak (Elizondo)  
**J.J. PIKABEA** Jantziak (Doneztebe)  
**JULI** Oinetakoak (Doneztebe)  
**KALASH** Bitxidenda (Bera-Donezt.)  
**MARICRUZ** Lentzeria (Doneztebe)  
**MARTZUTZAK** Jantziak (Bera)  
**MENA** Argazkiak (Elizondo-Donezt.)  
**MIRARI** Premama (Irun)  
**OSTIZ** Oinetakoak (Doneztebe)  
**RUTH** Ileapaindegia (Lesaka)  
**TXIMELETA** Jantziak (Doneztebe)  
**TXIRRISTA** Haur Jantziak (Doneztebe)  
**ZALDUA** Argazkiak (Elizondo-Donezt.)

**SARRERA LIBRE**

ZOZKETAN parte hartu ahal izateko, txartelak bildu behar dira sarreran edo partehatzen duten dendetan

**Abenduaren 3an**

arratsaldeko 6,30etan

Desfilean  
gorputz-makilajea  
erakutsiko da

Antolatzailea:

**ttipi-ttapa**

Laguntzaileak:

